

**ETXEKO TRATU TXARRAK ETA SEXU INDARKERIA JASATEN DITUZTEN EMAKUMEEI HARRERA
HOBEA EGITEKO ERAKUNDEEN ARTEKO II. AKORDIOAREN JARRAIPEN BATZORDEA**

.....

**ETXEKO TRATU TXARRAK ETA SEXU INDARKERIA JASATEN
DITUZTEN EMAKUMEEI HARRERA HOBEA EGITEKO
ERAKUNDEEN ARTEKO II. AKORDIOAREN
JARRAIPEN- ETA EBALUAZIO-TXOSTENA**

2010

**ERAKUNDEEN ARTEKO II. AKORDIOAREN
JARRAIPEN BATZORDEA**

2011ko azaroaren 8an

**ETXEKO TRATU TXARREN ETA SEXU-ERASOEN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEI
LAGUNTZA HOBEA EMATEKO ERAKUNDEEN ARTEKO II. HITZARMENAREN
JARRAIPEN- ETA EBALUAZIO-TXOSTENA – 2010.**

Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktima diren emakumeei laguntza hobea emateko erakunde arteko II. Hitzarmenak, 2009ko otsailaren 3an onetsiak, bosgarren xedapenaren g atalean adierazten du Jarraipen Batzordeak ekitaldi bakoitzaren amaieran prestatu eta onetsi behar duela Hitzarmenaren edukien betetze-maila zehazteko jarraipen- eta ebaluazio-txostena.

Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak, erakunde arteko II. Hitzarmenaren Jarraipen Batzordearen idazkaritza dagokion aldetik, dokumentu hau prestatu du, erakunde parte-hartzaileek emandako informazioa oinarri hartuta¹. Dokumentuaren helburua da erakunde sinatzaile bakoitzak egindako jarraipen- eta ebaluazio-txosten partzialetan jasotako informazio guztia testu bakar eta ordenatu batean biltzea, Hitzarmenean ezarritako konpromisoen eta jarraibideen betetze-mailari buruzko ikuspegi orokorra bideratzeko.

Hitzarmenean bertan xedatutako irizpideari jarraiki, dokumentu honek bi zati ditu:

- Lehenengo zatian zehazten dira erakunde sinatzaileek 2010ean garatutako ekintzak, Hitzarmenean adierazitako jarduera-protokoloan ageri diren neurri eta jarraibideen aplikazio eraginkorra bermatzeko.
- Bigarren zatian jasotzen da erakundeek beren txosten partzialetan jarduera-protokoloaren betetze-mailari buruz egindako balioespena, erakunde bakoitzari dagokion jarduera-eremuari erreparatuta.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko azaroaren 8an

¹ Ez dira kontuan hartu Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Euskadiko Sendagileen Kontseiluari dagozkien informazioak, erakunde horiek ez baitute txostenik bidali Jarraipen Batzordearen idazkari-lanetan diharduen Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzara. ARARTEKO erakundeari dagokion informazioa ere ez da kontuan hartu, erakunde hori 2011n sartu delako erakunde arteko II. Hitzarmenera.

I. GAUZATUTAKO EKINTZAK

I.1. EAE-KO FISKALTZA NAGUSIA

- Euskal Autonomia Erkidegoko fiskaltzetan 2010ean 2.188 salaketa-idazki egin dira (1.814 genero-indarkeriari buruzkoak eta 374 etxeko indarkeriari buruzkoak), eta 2.573 erresalbuzko neurri eskatu dira.
- 2009an 2.417 kalifikazio-idazki egin ziren, eta 1.724 erresalbuzko neurri eskatu ziren (emakumeen aurkako indarkeria: 373 urruntze-agindu eta 1.351 babes-agindu; etxeko indarkeria: 204 urruntze-agindu eta 867 babes-agindu).
- Datu horiek adierazten dute genero-indarkeriari lotutako salaketen kopuruak %14,43 behera egin duela, baina etxeko indarkeriaren alorreko salaketen kopuruak %25,93 gora egin duela. Erresalbuzko neurriei dagokienez, emakumeen aurkako indarkeriaren alorrean urruntze-aginduek nabarmen gora egin dute, 2009ko datuak erreferentziazat hartuta; aitzitik, etxeko indarkeriaren alorrean babes-aginduek nabarmen behera egin dute.
- Aipatzekoa da genero-indarkeriari lotutako prozeduretan, biktima adingabeen kasuan, testigantza bai Adingabeen Fiskaltzara, bai babes-erakundera, Foru Aldundira, Umeen Zerbitzura, bidaltzea eskatzen dela. Seme-alaba adingabeak delituaren zuzeneko biktima ez badira ere, inputatutako gurasoen bisita-eskubideak arautu behar dira. Halaber, erresalbuzko neurri zibilak eskatzen dira; batez ere, aipatutako bisita-eskubide horiek familia-elkarguneen bidez arautzea. Bisitak familia-elkarguneen barruan egiten dira, eta elkargune horiek, aldin behin, elkartzeko uneetan ikusitakoari buruzko txostenak bidaltzen dituzte epaitegira. Neurri zibil horiek prozedura zibiletara jotzen dute, azken finean, bai dibortzio-prozeduretara, bai gurasoen eta seme-alaben arteko neurrietara. Haietan berretsi egiten dira, oro har, eta betetzean ez da gertaera aipagarriarik ikusi.

I.2. EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA (LEHENDAKARITZARI ATXIKITAKO ERAKUNDE AUTONOMOIA)

- EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako V. Plana –IX. legealdirako jarraibideak– prestatzea, eta Gobernu Kontseiluak 2010eko ekainaren 29an onestea. Planaren egiturak hiru zati ditu: lehenengo

.....

atalean, gobernantza berdintasunaren alde hobetzeko helburuak ezartzen dira; bigarren atalean, IX. legealdirako gizarte-aldaketaren alorreko erronkak ageri dira, hiru ardatz hauek oinarri hartuta: emakumeen ahalduntzea eta balioak aldatzea, antolaketa sozial erantzukidea, eta emakumeen aurkako indarkeria; hirugarren atalean, proposatutako kudeaketa-eredua ageri da, kudeaketa-egiturak eta kudeaketaren hiru faseak azaltzen dituen: planifikazioa, ezarpena eta ebaluazioa.

- Berdinsarea–Berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako EAEko udalerrien sarean parte hartzea. Parte-hartzea honela gauzatu da: Emakunderen Zuzendaritzak parte hartu du Berdinsarean adostutako lankidetzaren eta erabakien jarraipenerako lan-bileretan, Berdinlan Protokoloak lan-taldeetako asanblada teknikoetan (etxeako indarkeriaren eta sexu-erasoen biktimei laguntzeko protokoloak sustatzeko), hezkuntza-batzordean, eta azaroaren 25eko kanpaina diseinatzeko eta kudeatzeko bileretan, baita emakume gazteen artean indarkeria prebenitzeko unitate didaktikoak egiten ere.
- Lankidetzeta-hitza mena sinatzea Emakunderen, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren eta Eudelen artean, 2010eko irailaren 1ean, IX. legealdi honetan sortutako Zuzendaritza horrek Berdinsarean parte har dezan.
- Indarkeriaren biktimei arreta emateko tokiko diagnostikoak eta/edo protokoloak egiteko bederatzi dirulaguntza ematea (81.050,85 €) eta emakumeen aurkako indarkeriaren ikuspegia aintzat hartzen duten hiri-diagnostikoak egiteko hiru dirulaguntza ematea (28.720,50 €), EAEko udalerrri, koadrila eta mankomunitateentzako dirulaguntza-deialdiaren esparruan, diagnostikoak egiteko eta/edo emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak egiteko beharrezko laguntza teknikoa emateko (guztira 400.000,00 €).
- Bi mintegi antolatzea NAHIKO programaren esparruan (berdintasunean, begirunean eta indarkeriarik eza hezteko hezkidetzeta-programa), 2010ean Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailan eta/edo 5. eta 6. mailan programa abian jartzen ari ziren ikastetxeei zuzenduak. Mintegiak “Hezkidetzeta - Berdintasuna” eta “Hezkidetzeta - Berdintasunean elkarrekin bizitzea” ardatzen ingurukoak izan ziren, biak ere Berritzeguneetako langileei eta inplikaturako irakasleei zuzenduak. Halaber, NAHIKO programaren barruan, esperientzia pilotu berri bati ekin zaio: Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailakoentzat da, eta bi urte iraungo du (2012ko ekainera arte). Esperientzia horretan EAEko 29 ikastetxe ari dira parte hartzen. “Gorputza” unitate didaktikoa diseinatu eta abian jarri da, eta “Sentimenduak” unitate didaktikoa diseinatzeari ekin zaio. Gainera,

.....

“Gorputza: indarkeriaren prebentzioa” 2011-11 esperientzia pilotuari buruzko I. NAHIKO mintegia gauzatu da, esperientzia pilotuan parte hartu duten ikastetxeetako irakasleei eta ikastetxe horiei dagozkien Berritzeguneetako langileei zuzendua.

- Ikastaroak antolatzea, bai aurrez aurrekoak, bai *on line* (programatuak edo bakoitzaren premien araberrakoak) Gizonduz ekimenaren esparruan. Emakundek bultzatutako ekimena da, gizonak berdintasunaren alde gehiago inplikatzeko helburu duena; horrenbestez, emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako jarduera aktiboa sustatzen du. 2010ean 330 prestakuntza-ordu eman dira, aurrez aurreko 84 ikastaroren bidez. Ikastaro horietan 895 gizonak eta 900 emakumek parte hartu dute. Gainera, 83 gizonak eta 52 emakumek parte hartu dute sentsibilizaziorako 60 orduko *on line* ikastaroaren 2. edizioan, eta beste 245 pertsonak (46 gizonak eta 199 emakumek) sentsibilizaziorako 8 orduko *on line* ikastaroa ondo amaitu dute. Gainera, “Berdintasunaren alde eta emakumeenganako indarkeriaren aurka gizonak inplikatzeko berdintasun politika publikoak” jardunaldia antolatu zen. Jardunaldi horretan Emakundeko zuzendariak ez ezik, Genero-indarkeriaren kontrako Gobernuaren ordezkariak eta Eusko Jaurlaritzako Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko zuzendariak ere parte hartu zuten. Gizonduz ekimenaren esparruan gauzatutako sentsibilizazio-jardueren artean, azpimarratzekoa da, halaber, “Berdintasunaren aldeko gizonak” gaian espezializatutako webgunearen administrazioa (www.euskadi.net/gizonduz). Webgune horretan informazio ugari ageri da, eta herritarren arteko komunikaziorako eta partaidetzarako diseinatutako bloga dauka. Gizonduz YouTube eta Facebooken kudeatzen jarraitu da, eta 2010en 4.600 lagun bildu dira Facebooken.
- 50 langiletik gorako enpresetan sexu-jazarpenari eta jazarpen sexistari aurre egiteko protokolo-proposamena prestatu da; 2011n argitaratu eta hedatuko da proposamen hori, eta enpresek arlo horretako araudiei erantzuteko tresna baliagarri izatea du xede. Protokoloaren helburua da, azken finean, lanean sexu-jazarpena eta jazarpen sexista prebenitzea, eta horrelako kasuetan esku hartzea bideratzea.
- Eudelekin, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzarekin eta Berdinsareako kide diren udalekin batera, azaroaren 25aren inguruko sentsibilizazio-kanpainan parte hartzea, “Beldur Barik!” goiburuarekin. Kanpaina horren esparruan gauzatu da, batetik, “Beldur Barik!” lehiaketa (90 proposamen aurkeztu dira eta 500 pertsonak hartu dute parte), eta bestetik, “Beldur Barik” jaialdia (400 parte-hartzaile inguru). Emakume gazteen aurkako indarkeria prebenitzeko unitate didaktikoak diseinatu dira. 2010eko kanpainan hiru foru-aldundiek eta Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU/UPV) lankidetzan jardun dute.

- Indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzeko Gizarte Zerbitzuen alorreko programen eraginkortasunaren eta irismenaren ebaluazioa egitea, gai horretan 2006an egindako ebaluazioa eguneratzeko eta dokumentu hartan emandako gomendioen jarraipena egiteko; eta proposamen bat diseinatzea jarraipenerako, ebaluaziorako eta komunikazio parte-hartzaileerako, ondorengo ebaluazioetarako proposamen metodologiko gisa. Ebaluazioan udaletako, foru-aldundietako eta Eusko Jaurlaritzako politikari eta teknikariek parte hartu dute, baita gaian inplikaturako elkarteek ere. Udaletako langile teknikoei 43 inkesta egin zaizkie, eta eztabaida-taldeak osatu dira, bai udaletako langile teknikoein, bai aztergaitzat hartutako zerbitzuak erabiltzen dituzten emakumeekin.
- Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktima diren emakumeei laguntza hobea emateko erakunde arteko II. Hitzarmenaren Jarraipen Batzordearen lehendakari den aldetik, Emakunderen zuzendariari dagozkion jarduerak; baita batzorde horrek ondo funtzionatzeko behar diren neurriak jartzea ere, Eusko Jaurlaritzaren Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzarekin batera, hari baitagokio idazkaritza. Jarraipen Batzordeak 2010eko azaroaren 18an izendatu zituen langile teknikoak, erakunde arteko talde teknikoa osatzeko; horrenbestez, 2011n osatu da talde hori, baita harrera-baliabideei buruzko lan-taldea ere.
- 2010eko urriaren 8an lankidetza-hitzarmen bat sinatzea Herrizaingo Sailarekin, Erakundearen eta Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren arteko lankidetza-eremua sendotzeko eta zehazteko, xedeak betetzea eta funtzioak gauzatzea helburu hartuta.
- Beste lankidetza- eta koordinazio-egitura batzuetan eta lan-taldeetan parte hartzea: partaidetza teknikoa Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak eta Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritzak emakume etorkinei eta genero-indarkeriari buruz bultzatutako lan-taldean; partaidetza teknikoa Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak sexu-esplotaziorako salerosketen biktima diren emakumeei buruz bultzatutako eta koordinatutako lan-taldean; Emakunderen Zuzendaritzak Bizkaiko Foru Aldundiaren Indarkeriaren Behatokian parte hartzea, eta Erakundeko langile teknikoek Behatoki horren adierazleei buruzko lan-talde teknikoan parte hartzea; Deustuko Unibertsitatearekin lankidetza, "Emakumeen kontrako indarkerian esku hartzeko Masterra" egiteko: 2009/2010 (VII. edizioa) ikasturteko ikasleentzako bekak, eta irakaskuntzan parte hartzea; Emakunderen Zuzendaritzak parte hartzea Berdintasunaren Sektore Konferentziako batzorde teknikoan eta Berdintasunaren Sektore Konferentzian; Emakunderen Zuzendaritzak Beijing+15 Emakumeen Europako Foroan (Cádiz) parte hartzea;

Emakunderen Zuzendaritzak parte hartzea Nazio Batuen Emakumeen Batzorde Juridiko eta Sozialaren (CSW) 54. bilkuran (New Cork).

- Emakunderen Zuzendaritzak eta Erakundeko langile teknikoek prestakuntza-jardunaldietan, mahai-inguruetan eta beste ekitaldi batzuetan parte hartzea.

1.3. EUSKO JAURLARITZAKO HERRIZAINGO SAILA

Zalantzarik gabe, legealdi berri honetan Herrizaingo sailburuaren menpekotasun zuzenean Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza sortu izanak berezitasun garrantzitsua dakar, aurreko urtean Herrizaingo Sailak gauzatutako ekintzei erreparatuta; izan ere, Zuzendaritza horren ardura da Herrizaingo Sailaren ildo nagusiak prestatzea, genero-indarkeriaren biktimeizako arretari dagokionez.

Genero-indarkeriaren biktimei arreta emateko politikak ezartzea helburu hartuta, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak horretarako behar duen informazioa Ertzaintzaren Zuzendaritzatik lor dezake. Halaber, Ertzaintzaren Zuzendaritzaren laguntza dauka, Zuzendaritzak genero-indarkeriaren biktimen alorrean ezarritako zuzentarauak, zirkularrak eta helburuak abian jartzeko edota aplikatzeko.

Horrenbestez, Herrizaingo Saileko Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak 2010ean gauzatu dituen ekintzak honako hauek dira:

- Martxoaren bateko 29/2011 Dekretua, genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean dauden koordinazio-mekanismoak buruzkoa, idaztea eta izapidetzea.
- Biktimen espediente bakarra lortzea helburu hartuta, Jaurlaritzan genero-indarkeriazko kasuak kudeatzeko baliabide informatiko bat abian jartzeko aurretiazko lanak.
- Genero-indarkeriaren kontrako Jaurlaritzaren I. Jarduteko Plana prestatzea.
- Eguneratutako estatistikak antolatzea, aztertzea eta hedatzea: Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza lanean aritu da Saileko estatistikak berrantolatzeke eta hobetzeko; lan handi horren emaitza da arazoaren ikuspegi osoagoa, eta estreinakoz bereizi dira biktimizazioak (genero-indarkeriazko kasuak), biktimizazio horiek pairatzen dituzten emakumeak, genero-indarkeriagatik jarritako salaketak, eta gutxienez salaketa bat jarri duten emakumeak.

- 24 orduko telefono bidezko laguntza emateko doako zerbitzuaren kudeaketa eta hobetze etengabea (900 840 111): Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak zerbitzu horri gehitu dizkio bai aholkularitza juridikoa, bai entzumen-urritasuna duten pertsonentzako arreta, bai genero-indarkeriaren edonolako adierazpena pairatu duten biktimentzako laguntza. Gainera, 2010ean, Ertzaintzaren “bortxa” telefonoak 900 840 111 telefonoarekin konektatu ziren. Guztira 3.369 telefono-dei izan dira 2010ean, hilero 281 dei, batez beste. Hortaz, azpimarratu behar da jasotako deien kopuruak nabarmen gora egin duela, 2009ko datuak erreferentziazat hartuta (%17tik gorako igoera), eta, zerbitzua 2006an abian jarri zenetik hona, deien kopurua ia hirukoiztu egin dela.
- Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak bere gain hartzea Ertzaintzak biktimei emandako arretari buruzko asebetetzea neurtzeko inkestak egiteko ardura.
- Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren bulegoetan 715 informazio- eta aholkularitza-jarduera inguru egin dira 2010ean.
- Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako laguntzen 2010erako programa gauzatzea. Guztira, 2010ean 452.412 € eman dira (aurrekontu osoaren %99, bi zabalkuntza hauen ostean: 150.000 €-koa 2010eko ekainean, eta 75.000 €-koa 2010eko abenduan); 2009an, berriz, 139.191,33 € eman ziren. 2010ean izapidetutako laguntzen kopuruak %79 gora egin du, 2009an izapidetutakoak erreferentziazat hartuta, eta 134 ehuneko-puntu igo da, 2008an izapidetutako laguntzen kopuruarekin alderatuta (55, 72 eta 129 laguntza-eskaera 2008an, 2009an eta 2010ean, hurrenez hurren). Emandako laguntzei dagokienez, 2010ean emandako laguntzak 139 ehuneko-puntu igo dira, 2009an emandakoak erreferentziazat hartuta, eta 258 ehuneko-puntu, 2008an emandakoekin alderatuta (24 laguntza eman ziren 2008an, 36 laguntza 2009an, eta 86 laguntza 2010ean). 2010ean 129 laguntza-eskaera jaso dira. 129 eskaera horietatik, 115 erabaki dira (86 eman eta 29 ukatu dira), eta 14 erabakitzeke geratu dira. 29 eskaerak ukatzeko arrazoiei dagokienez, honako hauek aipatu behar dira: lehenik, eskatutako agiriak ez aurkeztea (13 kasu); bigarrenik, laguntza eskatzeko nahitaezko baldintzetako bat ez betetzea (12 kasu); eta, azkenik, jasotako beste errentaren batekin bateraezina izatea, esate baterako, diru-sarrerak bermatzeko errentarekin edota gizarteratzeko errenta aktiboarekin (4 kasu).
- Genero-indarkeriazko edonolako kasutan Ertzaintzaren jarduteko eta informazioa emateko prozedurak berrikustea eta eguneratzea.

- Ertzaintzaren EI/GI prozesua etengabe berrikustea, eta hobetzeko aukerak aztertzea. GIBLZk aintzat hartzen du bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta ematearen alorrean Ertzaintzak egindako lan bikaina; horregatik, beste mota batzuetako genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko ere kalitate eta berotasun berdina lortzeko ahaleginean dihardugu (sexu-erasoen eta derrigortutako prostituzioaren biktimei buruz ari gara, hain zuzen).
- Bikotekidearen aurkako indarkeria larria pairatzeko arriskua aurreratzeko eskala berrikustea eta baliozkotzea.
- Sexu-erasoak gertatuz gero Ertzaintzak emandako polizia-arreta hobetzeko *benchmarkinga*.
- Sexu-askatasunaren aurkako delituen biktimei arreta ematearen alorrean kalitatea kudeatzeko sistemaren garapena Ertzaintzan.
- Sexu-esplotazioa helburu duten salerosketen biktima diren emakumeei ematen zaien arreta eta babesa hobetzea.
- EAEn jarritako GPS gailuen ezarpenaren jarraipena.
- Biktimei arreta eta babesa emateko polizia-baliabideak: 2010eko abenduaren 31n 19 emakumek zeukaten etengabeko zaintza, babesa bermatzeko esleitutako eskoltaren bidez; 2010eko amaieran 10 erasotzaile eta biktimek zeramatzaten eskumuturreko bilatzaileak; eta 2010eko amaieran 166 emakumek zeukaten Ertzaintzak babesteko emandako sakelako telefonoa.
- Herrizaingo Sailaren eta Taxien Euskal Federazioaren artean lankidetzaprotokolo bat sinatzea, genero-indarkeriazko kasuetan adingabeak eramateari buruz.
- Ertzaintzaren eta udaltzaingoen artean koordinazio-protokoloak bultzatzea.
- Genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko ekimenak sustatzen dituzten erakundeentzako 2010eko deialdia. Deialdi horretara 44 erakunderen 55 proiektu aurkeztu ziren guztira.
- Dokumentuen azterketa eta gizartean kontrastatzeko lana, eztabaida-taldeen bitartez. Eztabaida-talde horietan parte hartu dute esku hartzeko hainbat sistemetako profesionalek, haien eskaerak aintzat har daitezen

indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei arreta integrala emateko egingo den legean.

- Sexu-esplotazioa helburu duten salerosketen biktima diren emakumeei buruzko lan-taldea: hiru gida prestatzea zenbait hizkuntzatan (biktimentzako triptikoa, biktima izan daitezkeenei zuzendutako gidaliburu zabalagoa, eta profesionalei zein herritarrei oro har zuzendutako gida) eta elkarteetan eta erakundeetan artean jarduera- eta koordinazio-protokoloak prestatzea derrigortutako prostituzio-kasuei eta emakumeen salerosketei aurre egiteko.
- Herrizaingo Saileko Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak eta Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritzak baterako lan-dinamikari ekin zioten 2010ean, emakume etorkinek indarkeria matxistaren aurrean izan dezaketen zaurgarritasun bereziari heltzeko. Testuinguru horretan, gaian interesa eta ardura duten gainerako erakundeek eta elkarteek ere diagnostikoa egiteko eta aholkuak emateko prozesuan parte hartu behar zutela ulertu zen. 2010ean, baterako lan horren esparruan, egoeraren lehen diagnostiko bat egitea planteatu zen; 3 bilera tekniko egin ziren, eta lan tekniko bati ekin zioten, erakundeetan eta taldeen erantzunak jasotzeko galdera-sorta bat oinarri hartuta. Diagnostikoa egiteko jasotako informazioa sistematizatu zen, eta prozesu horren emaitza da EAEko emakume etorkinen aurkako genero-indarkeriaren prebentziorako eta arretarako diagnostikoa eta jarduteko jarraibideen ezarpena. Halaber, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak eta Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritzak bultzatutako lanaren ondorioz, genero-indarkeriaren biktima diren emakume etorkinei arreta emateko gomendioak jasotzen dituen dokumentua prestatu zen.
- Lanean sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena pairatzen duten emakumeentzako informazio-liburuxka egitea.
- Dirulaguntzak ematea, genero-indarkeriaren biktimentzako arreta, solidaritatea eta laguntza sustatzen duten erakundeei eta elkartei, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak egindako deialdiaren esparruan. Horrenbestez, 44 proiektuk jaso dituzte dirulaguntzak (Guztira: 400.000 €).
- Eusko Jaurlaritzaren politika koordinatzea, genero-indarkeriaren alorrean laguntza emateko.

- Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktima diren emakumeei laguntza hobe emateko erakunde arteko II. Hitzarmenaren Jarraipen Batzordearen idazkaritzaren ardura hartzea.
- Justizia eta Herri Administrazio Sailarekin batera egindako aurretiko lanak, 2011ko urtarilaren 1etik aurrera Herrizaingo Saileko Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak bere gain hartzeko Biktimei Laguntzeko Zerbitzuen (BLZ) zuzeneko kudeaketa. Biktimei Laguntzeko Zerbitzuak Barakaldoko, Bilboko, Donostiako eta Gasteizko justizia-jauregietan daude, genero-indarkeriaren biktimei arreta emateari dagokionez. 2010ean Biktimei Laguntzeko Zerbitzuen bulegoan 1.482 pertsonen eman zaie arreta, genero-indarkeriaren adierazpide desberdinak direla-eta. Erabiltzaileen %62 inguru bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeriaren zuzeneko edo zeharkako biktima izan dira.
- Genero-indarkeria desagerraraztea sustatzen duten EAEko zenbait organoetan parte hartzea: Bizkaiko Foru Aldundiaren Genero Indarkeriaren Behatokia, erakunde arteko II. Hitzarmenaren Jarraipen Batzordearen bilerak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua, Ijito Herriaren Euskal Kontseilua, etab.
- Berdinsarea–Berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako EAEko udalerrien sarearen esparruko bilera politikoetan, asanblada teknikoetan, lan-taldeetan, hezkuntza-batzordean, eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako nazioarteko egunerako – azaroak 25– kanpaina diseinatzeko lan-saioetan parte hartzea.
- Biktimei informazioa, laguntza eta babesa ematen diharduten profesionalen berariazko prestakuntzaren sustapena bultzatzea.
- Genero-indarkeriari aurre egiteko tokiko protokoloak bultzatzea eta ikuskatzea: tokiko protokoloak egitea bultzatzea, eta jada eginak daudenak ikuskatzea.
- Berdintasunerako Estatu Idazkaritzarekin koordinatzea, Euskal Autonomia Erkidegoan GPS gailuak jartzeko; halaber, Justizia eta Herri Administrazio Sailarekin, Epailtzarekin eta Fiskaltzarekin koordinatzea GPS gailu horiek hobeto erabiltzeko.
- Beste erakunde batzuek genero-indarkeria gaitzesteko deitutako jarduera eta ekimenetan parte hartzea.
- EAEn gertatutako genero-indarkeriazko ekintzak jendaurrean gaitzestea.

.....

- “Bortxa” telefonoari buruzko informazio-diptikoak egitea.
- Sentsibilizazio-kanpaina bat egitea “Tratu txarretatik irten daitekeelako” goiburuarekin.
- Eudelekin eta Emakunderekin batera, azaroaren 25aren inguruko “Beldur barik!” sentsibilizazio-kanpainaren diseinuan eta hedapenean parte hartzea.
- Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritzarekin batera, sentsibilizazio-kanpaina bat egitea, genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeei zuzendua: “Seinaleak sumatuz gero, aurre egin!”, zenbait hizkuntzatan egina.
- Genero-indarkeriaren biktimak gizartean eta lanean txertatzeari buruz eta sexu-erasoei buruz ikerketa-proiektuak gauzatzea.
- Genero-indarkeriaren Euskal Behatokia sortzeko dekretua prestatzea.
- Biktimei ematen zaien arretaren alorreko esperientzien eta praktika onen azterketa eta analisisa sustatzea.
- Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren parte-hartzea hainbat prestakuntza-jardunaldi, mahai-inguru eta bestelako ekitalditan. Emakumeen kontrako indarkerian esku hartzeko Masterrean irakasle-lanak egitea.
- Deustuko Unibertsitatearekin 2010erako lankidetzeta-hitzarmena, Emakumeen kontrako indarkerian esku hartzeko Masterreko ikasleei bekak emateko.
- Genero-indarkeriaren hain begi-bistakoak ez diren moduei buruzko jardunaldien antolaketa (Euskalduna Jauregia, Bilbo, 2010eko irailak 29 eta 30).
- Genero-indarkeriaren alorreko erasotzaileak berrezteko esku-hartze programei buruzko nazioarteko jardunaldiaren antolaketa (Euskalduna Jauregia, Bilbo, 2010eko azaroak 5).

I.4. EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

- Berdintasunerako unitate administratibo baten sorrera: Hezkuntza Administrazioan berdintasunerako unitate administratibo bat sortu da; genero-berdintasunean espezializatutako teknikari bat dauka, Sailean berdintasunerako politikak bultzatzeaz eskusiboki arduratzen dena.
- Legealdiaren planifikazioa, emakumeen aurkako indarkeriaren alorrean: Emakundek prestatutako EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako V. Planeko “Emakumeen aurkako indarkeriaren ardatza” deritzon esparruko hainbat programa, helburu estrategiko eta helburu operatibotan inplikatur dago Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.
- Berdintasunerako politikak bultzatzeko eta koordinatzeko sail- eta sektore-egiturak sortzea eta sendotzea: Jarraipen Batzordea, Saileko Berdintasunerako Talde Teknikoa, eta Sindikatueto Berdintasunerako Batzordea, EAEko unibertsitatez kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzeko akordioaren esparruan (EHAA, 10-07-16).
- Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko erakunde arteko kanpainetan parte hartzea eta koordinazioaz arduratzea.
- Ikastetxeetan bizikidetzarako planak eta behatokiak bultzatzea eta sendotzea: 2010ean 95 ikastetxek prestatu dute bizikidetzarako plana eta ikastetxeko bizikidetzatza-behatokia abian jarri dute.
- Eskoletan cyberbullyingaren aurrean jarduteko protokoloa prestatzea. Protokolo horretan sartu dira, halaber, eskola-eremuan sexismoa prebenitzeari eta emakumeen aurkako indarkeria goiz detektatzeari lotutako gaiak.
- Ikastetxeetan hezkidetzarako, berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentziorako proiektuak bultzatzea, berrikuntzarako eta prestakuntzarako proiektuen deialdiaren esparruan.
- Berdinen arteko tratu txarren aurrean ikastetxetan jarduteko gidaliburuan jasotako jarduera-protokoloan xedatutakoa aplikatzea: 2010ean gidaliburu hori berrikusteko premia ikusi da, berdinen artean gerta daitezkeen tratu txarren artean eduki sexista duen eskolako jazarpena mugatzeko alderdi batzuk sartzea eta hezkuntzan prebentzio-neurriak txertatzea helburu hartuta.

- Genero-indarkeriazko ekintzen ondorioz bizilekua aldatu behar izan duten biktimen seme-alaben berehalako eskolaratzea bermatzea.
- Erakunde arteko II. Hitzarmenaren Jarraipen Batzordearen bileretan parte hartzea.

1.5. EUSKO JAURLARITZAKO JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

- Emakumeen aurkako indarkeriari, familia barruko indarkeriari edo sexu-erasoei lotutako delituen biktimei laguntza juridikoa emateko hitzarmenean xedatutakoa betetzea.
- Genero-indarkeriaren alorreko erasotzaileen berreziketan esku hartzeko programa garatzea.

1.6. EUSKO JAURLARITZAKO ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

- Genero-indarkeriaren biktima direla egiaztatu duten emakumeen 224 espediente sartzeari genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako berariazko kupoan. 224 espediente horiek guztiak honako baldintza hauek betetzetik salbuetsita daude: gutxieneko diru-sarreraren baldintza, eta parte-hartzea eskatutako edozein udalerritan erroldatuta egoteko baldintza. Ohiko prozeduratan sartu diren 224 espedienteetatik, 2010ean 19 emakume izan dira esleipendun.
- Alokairu-erregimeneko etxebizitzak zuzenean esleitzea genero-indarkeriaren biktima diren 11 emakumeri. Emakume horien soslaia hau da: espainiar nazionalitatea (%54), 40 urtetik beherakoak (%42), dibortziatuak (%45), eta 2 kide edo gehiagoko bizikidetzak-unitateak (%82).
- Erakunde arteko II. Hitzarmenaren Jarraipen Batzordearen bileretan parte hartzea.
- Emakundek prestatutako EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako V. Planeko "Emakumeen aurkako indarkeriaren ardatza" deritzon esparruan eta Zuzendaritzak prestatutako Genero-indarkeriaren kontrako Jaurlaritzaren I. Jardutako Planaren esparruan parte hartzea eta ekarpenak bidaltzea.
- Eudelek, Emakundek eta Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak bultzatutako azaroaren 25erako kanpainan parte hartzea.

- Euskotrenen sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren prebentziorako protokolo baten lehen idatzaldia prestatzea. Euskotren enpresak kapital publikoa du gehienbat, eta Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailari atxikita dago.

1.7. EUSKO JAURLARITZAREN ENPLEGU ETA GIZARTE GAJETAKO SAILA

- Erakunde arteko II. Hitzarmenaren Jarraipen Batzordearen bileretan parte hartzea.
- 649/2009 Dekretuaren bidez, genero-indarkeriaren arazoari lotutako bost proiektu finantzatzea. Dekretu horren bitartez arautzen dira EAEko gizarte-alorreko esku-hartzearen eremuko hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko dirulaguntzak.
- Zazpi erakunde publikori (udal eta mankomunitate) laguntzak ematea, genero-indarkeriari lotutako gizarte-alorrean esku hartzeko jarduerak egiteko: gizartean esku hartzeko proiektuak, orientazio psikologikoa, aholkularitza juridikoa, gizarte-laguntza, edota genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako gizarte- eta hezkuntza-alorreko sostengua.
- Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen segurtasuna bermatzea familia-elkarguneetan, segurtasunaren eta ongizatearen berme osoa ematen duten gune neutralak izan daitezen.
- Familia-elkarguneetarako sarbidea deribazio judizialaren bidez gauzatzea. Organo judizialak txostena egin behar du, babes-agindua edota genero-indarkeriaren biktimentzako segurtasun-neurriak ezarri direla adierazteko. Uztailaren 31ko 27/2003 Legea, etxeko indarkeriaren biktimak babesteko agindua arautzen duena, indarrean jarri ondoren, pixkanaka gora egin dute etxeko indarkeriazko egoera gatazkatsuak, eta kasu konplexu eta oso gatazkatsu horiei erantzuteko familia-elkarguneen premia dago. Horren ondorioz, egoera oso gatazkatsuetan esku hartzeko prozedura prestatu da, polizia-laguntza aurreikusi da, baita Udaltzaingoarekin eta/edo Ertzaintzarekin koordinaturik jarduteko protokoloa ere. Babes-agindua jasotzen duten 392 espedientez arduratu dira guztira Bilboko, Donostiako, Portugaleteko eta Gasteizko familia-elkarguneetan 2010ean.
- Herrizaingo Saileko Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak eta Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritzak baterako lan-dinamikari ekin zioten 2010ean, indarkeria matxistaren aurrean emakume etorkinek paira

dezaketen zaurgarritasun bereziari heltzeko. Testuinguru horretan, gaian interesa eta ardura duten gainerako erakundeek eta elkarteek ere diagnostikoa egiteko eta aholkuak emateko prozesuan parte hartu behar zutela ulertu zen. 2010ean, baterako lan horren esparruan, egoeraren lehen diagnostiko bat egitea planteatu zen; 3 bilera tekniko egin ziren, eta lan tekniko bati ekin zioten, erakundeen eta taldeen erantzunak jasotzeko erabilitako galdera-sorta oinarri hartuta. Diagnostikoa egiteko jasotako informazioa sistematizatu zen, eta prozesu horren emaitza da EAEko emakume etorkinen aurkako genero-indarkeriaren prebentziorako eta arretarako diagnostikoa eta jarduteko jarraibideen ezarpena. Halaber, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak eta Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritzak bultzatutako lanaren ondorioz, genero-indarkeriaren biktimei diren emakume etorkinei arreta emateko gomendioak jasotzen dituen dokumentua prestatu zen.

- Herrizaingo Saileko Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzarekin batera, sentsibilizazio-kanpaina bat egitea, genero-indarkeriaren biktimei diren emakume etorkinei zuzendua: "Seinaleak sumatuz gero, aurre egin!". Kanpaina hori zenbait hizkuntzatan egin da, eta informazioa eskura ez duten emakume etorkinak daudela iruditutako inguruetan hedatu da.
- Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritzak GIDATZEN etorkinentzako gidaliburuan genero-indarkeria pairatzen duten emakume etorkinei zuzendutako atala txertatzea: "Zer egin emakumeen kontrako tratu txarrak daudenean".
- 329/2003 Dekretuak, enplegua sustatzeko laguntzak arautzekoak, xedatutakoari jarraiki, 2 enpresek jaso dituzte laguntza horiek, genero-indarkeriaren biktimei diren bi emakume kontratatzeagatik.
- Diru-sarrerak bermatzeko Legearen 9.1.b artikulua aplikatzea, legeari dagokionez bizikidetza-unitatetzat hartuta "etxekeko tratu txarren biktimei izanda, beren ohiko helbidea utzi duten pertsonak, baita haien seme-alabak ere, horrelakorik izanez gero". Diru-sarrerak bermatzeko legearen 16. artikuluan planteatutako salbuespena aplikatzea. Horrenbestez, diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko, genero-indarkeriaren biktimei diren emakumeek ez dute zertan bete behar 23 urtetik gorakoa izateko eskakizuna, 18 urtetik gorakoak izatea nahikoa da. Halaber, 46. artikulua aplikatzea gizarte-larrialdietarako laguntzetan, etxekeko tratu txarren biktimei diren emakumeen kasuan salbuespen berdina aintzat hartuta.

I.8. EUSKO JAURLARITZAREN OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

- EAEko osasun-sisteman genero-indarkeriaren alorreko prestakuntza-jarduerak diseinatzea, prestatzea, abian jartzea eta ebaluatzea, osasun-sistemako langileak emakumeen aurkako indarkeriari arreta emateko baliabideak erabiltzeko trebatzea helburu hartuta. Horretarako, genero-indarkeriari aurre egiteko lan-talde teknikoa osatu da, gaian aditua eta prestatua.
- Informazio-sitemetan beharrezko aldagaiak sartzea, genero-indarkeriari dagozkion kalitate-adierazleak lortzearren, genero-indarkeriari buruz jasotako informazioa homogeneizatzeko eta bai lehen mailako arretan bai arreta espezializatuan dauden eskakizunetara egokitzeko (ezarritako adierazleen arabera). Horretarako, historia klinikoko zenbait alderdi aldatu dira, informazioa genero-indarkeriari buruzko aldagaietara egokitzeko.
- Osasun-zerbitzuen barruko eta erakunde arteko koordinaziorako neurriak eta ekimenak diseinatzea eta ebaluatzea, genero-indarkeria pairatzen duten emakumeei ahalik eta arreta integratuena eta koordinatuena bermatzeko, osasun alorrean ez ezik, eremu polizial eta judizialean, eta gizarte-zerbitzuen esparruan. Horretarako, genero-indarkeriaren batzordea sortu da osasun alorrean, lehen mailako arretako eta arreta espezializatuetakoko kideekin, eta eremu judizial, sozial eta polizialetako pertsonek ere parte hartzen dute.
- Erakunde arteko II. Hitzarmenaren Jarraipen Batzordearen bileretan parte hartzea.
- Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako arreta osoaren alorreko helburuak eta jarduerak txertatzea osasun-sisteman, beste erakunde batzuekin koordinaturik, bai Genero-indarkeriaren kontrako Jaurlaritzaren I. Jarduteko Planean (Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak egina), bai EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako V. Planean (Emakundek egina).
- Genero-indarkeriaren eta osasunaren alorreko ikerkuntza sustatzea, honako helburu hauek aintzat hartuta: emakumeen aurkako indarkeriaren iraupena kalkulatzeko; bikotekideak eragindako indarkeriaren eta osasunari lotutako sintoma eta gertaera batzuen arteko lotura ebaluatzea; eta bikotekidearen indarkeria pairatzetik babestea edota arrisku-egoeran jartzea eragin dezaketen faktoreak definitzea.

1.9. ARABAKO FORU ALDUNDIA

- Genero-indarkeriari eta erakunde arteko II. Hitzarmenari buruzko informazio-saioa egitea Arabako 20.000 biztanletik beherako udalerrietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuentzat.
- Emakumeen aurkako indarkeriari eta esku hartzeko politikei buruzko jardunaldia egitea. Jardunaldi horretan instituzioetako eta gobernuz kanpoko erakundeetako 120 parte-hartzaile bildu ziren.
- Zerbitzua emateko erabiltzen diren lokalen alokairu-kontratua luzatzea, baita genero-indarkeriazko kasuetan arreta psikologikoa eta orientazio juridikoa emateko Foru Zerbitzuaren kudeaketa-kontratua ere: 2010ean 552 pertsoneri eman zaie laguntza zerbitzu horretan (426 biktima heldu, 61 adingabe, eta tratu txarrak ematen aritutako 65 gizon). 552 pertsona horietatik, 325ek estreinakoz jo zuten zerbitzura 2010ean.
- Genero-indarkeriazko egoeretan arreta-zerbitzuak emateko eta erakunde arteko koordinazioa garatzeko Gasteizko Udalarekin adostutako lankidetzak-hitzarmena luzatzea.
- Laudioko Udalarekin eta aipatutako arreta psikologikorako zerbitzuan arreta jasotako emakumeen seme-alabei laguntzeko emakume-sarearekin egindako lankidetzak-hitzarmena luzatzea.
- Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako harrera-pisuen zerbitzua ematen jarraitzea, eta hartutako emakumeentzako eta haien ardurapeko adingabeentzako gizarte-heziketarako eta laguntzarako programaren kontratua luzatzea. Programa horretan parte har dezakete indarkeriaren biktima izan eta harrera-premia duten emakumeak, ohiko bizilekua utzi ez badute ere.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren gaia sartzea Arabako emakumeen eta gizonen berdintasunerako III. Foru Planean.
- Enpleagarritasun-programarako lankidetzak-hitzarmena luzatzea. Programa horretan sartuta dago genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako berariazko ekintza bat.
- Gizartean esku hartzeko goi-teknikari baten jarduna. Haren eginkizuna da, besteak beste, Gizarte Ongizate Erakundearen mendeko programa, zentro eta baliabideen diseinua, kudeaketa eta jarraipena egitea, eta genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta espezializatu hobe emateko proposamenak garatzea eta planteatzea.

I.10. BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

- *Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiak* 2003tik hona garatutako eginkizunarekin jarraitzea. 2010ean bi osoko bilkura eta genero-indarkeriaren adierazleei buruzko lan-taldearen lau bilera egin dira. Gainera, Behatokiaren esparruan, jarduera hauek gauzatu dira 2010ean: datuak biltzeko sistema automatizatua hobetzen jarraitu da; gizarte-alorreko datu bilketa egin da; tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei laguntzeko baliabide espezializatuak dituzten udalerri eta mankomunitateen jarduerari buruzko sei hilez behingo datu-bilketa egin da, berrikuntza eta esperientzia pilotu gisa; Udal Harremanen Sarea sendotu da; Gizarte Ekintza Saileko Emakume eta Familien Zerbitzuko webguneko Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren edukia aldian-aldian eguneratu eta elikatu da; Bizkaiko Lurralde Historikoko baliabideen mapan emakumeen aurkako indarkeriaren alorrean jasotako informazioa eguneratu da; Bizkaiko baliabideen atlasa eguneratu eta garatzen jarraitu da Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren webgunerako; Gizarte Ekintza Sailak egindako ikerlana aurkeztu eta hedatu da: “Emakumeen aurkako etxe barruko indarkeria. 2009ko emaitzak eta 2005-2009 konparazioa Bizkaiko Lurralde Historikoan”; “Genero-indarkeriako egoeretan emandako laguntzaren zifrak Bizkaiko Lurralde Historikoan. Gizarte Babesaren, Poliziaren eta Justiziaren arloak. 2009” txostena prestatu, balioetsi eta aurkeztu da; “Etxean indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzeko foru-baliabideak, eta udalerrietako eta mankomunitateetako baliabideak. Harrera, aholkularitza juridikoa, laguntza psikologikoa, familietan esku hartzeko programa espezializatuak eta familia-elkarguneak. 2011” dokumentua prestatu, balioetsi eta argitaratu da; “Prebentzio eta arreta arloan genero-indarkeriaren aurkako jardun, ekimen eta esperientzien eskuliburua” dokumentua prestatu eta argitaratu da; eta lau informazio-buletin prestatu, argitaratu eta hedatu dira, aurreko diseinua aldatu eta partaidetza indartzen duten formulak erabilia, Udal Harremanen Sarea sendotzeko.
- Tratu txarrak eta sexu-erasoak gertatzen direnean, familian esku hartuz laguntza psikologikoa emateko programa eskaintzea. Programa hori 1992an abian jarri zenetik, eskaerak gora egin du, eta programaren estaldura gorakada horretara egokitu da. Gaur egun, 429 ordu ematen dira astero. 2010ean 932 pertsoneri eman zaie arreta, eta haietatik 521 kasu berriak izan dira.
- Familiaren arloko zuzenbidean, edota tratu txarrak eta/edo sexu-erasoak daudenean, aholkularitza juridikoa emateko programarekin jarraitzea. 2010ean 404 kontsulta egin dira guztira, haietatik 389 kasu berriak izan

.....

dira (81 kasu tratu txarrei lotutakoak izan dira, eta 24 kasu sexu-erasoei buruzkoak).

- Etxeko eremuko emakumeen aurkako indarkerian espezializatutako familiako esku-hartze programa eskaintzea. 2010ean 112 pertsonak jaso dute laguntza hori: 61 emakumek eta 51 adingabek. Emakume horiekin guztiekin banakako esku-hartzea gauzatu du programan diharduen diziplina anitzeko taldeak. Esku-hartze horren osagarri, taldeko esku-hartzea egin da: 2010ean bi talde osatu dira eta 17 emakumek hartu dute parte.
- Familian esku-hartzeko programa garatu da, etxean indarkeria erabiltzen duten nerabeei laguntzea helburu duena. Programa horrek aurre egiten dio gurasoei edo etxeko beste pertsona batzuei eraso egiten dieten nerabeen arazoari. 2010ean 156 pertsonak jaso dute laguntza hori: 49 familiek, gurasoen aurka indarkeria erabiltzen zuten 49 nerabe zirela-eta (29 mutil eta 20 neska) sortutako arazoen ondorioz. Kasuen %100ean, semeak edo alabak emandako tratu txarren biktima izan da ama, eta familien %45ean aita ere hala izan da.
- Familia-elkarguneen zerbitzua ematea, Bilboko deribazio judizialaren ondorioz, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko lankidetzak-hitzarmenaren bitartez. 2010ean 336 familiatako 435 adingaberi eman zaie zerbitzu hori. Ia kasu guztien erdian (155 familiari buruzko 214 espedientetan) babes-aginduak daude, eta 151 familiatan babes-agindua amaren alde emanda da.
- Tratu txarren biktima diren emakumeei eta haien ardurapean dauden seme-alaba eta mendeko helduei larrialdietarako harrera-zerbitzua emateko programarekin jarraitzea, arriskuan daudelako etxea utzi eta zentro batera joateko premia dutenean laguntzeko. 2010ean 101 pertsona hartu ziren zerbitzu horretan: 55 emakume, eta haien ardurapeko 45 adingabe eta mendeko heldu bat.
- Etxean tratu txarren biktima diren emakumeei eta haien ardurapean dauden pertsonen arreta osoko egoitza-zerbitzua ematea, iraupen ertain edo luzeko behin-behineko egoitza behar izanez gero. Hartutako pertsona bakoitzarekin berariazko esku-hartzea gauzatu da, baita familia-unitatearekin ere, kasu bakoitzeko premien arabera. 2010ean 19 pertsona hartu ziren: 9 emakume, eta haien mendeko 10 seme-alaba.
- Telefono bidezko aldi bereko itzulpen-zerbitzua eskaintzea. Zerbitzu horren helburua da tratu txarren biktima diren emakumeentzat Bizkaiko Foru Aldundiak kudeatutako harrera-zentroetan gerta daitezkeen itzulpen-

.....

premia zehatzei erantzutea; esate baterako, Gizarte Ekintza Saileko Emakume eta Familien Zerbitzuko profesionalen taldeak kolektibo horrekin zuzenean esku hartzean sor daitezkeen premiak.

- Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei arreta emateko prestakuntza- eta sentsibilizazio-jardueren diseinuan eta gauzatzean lankidetzan jardutea, erakunde arteko II. Hitzarmenari dagokionez.
- Dirulaguntza-deialdiak arautzeko foru-dekretuan lehentasuna ematea, emakumeen kolektiboari dagokionez, zuzeneko aholkularitza juridikoari lotutako irizpideei.
- Gizarte Ekintza Saileko Emakume eta Familien Zerbitzuak abian jarritako azken bi programen edukiari, onuradunei eta sarbideari buruzko informazio- eta hedapen-kanpaina egitea.
- Emakunderekin lankidetzan jardutea, EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako V. Planaren garapena eta jarraipena bideratzeko.
- Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak eta Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritzak emakume etorkinei eta genero-indarkeriari buruz bultzatutako lan-taldean parte hartzea.
- Azaroaren 25erako “Beldur Barik!” erakunde arteko sentsibilizazio-kanpainaren finantzaketan parte hartzea eta lankidetzan jardutea, Berdintasun-erakundearen aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako EAEko udalerrien sarearen esparruan.
- Zenbait aholkulariekin lankidetzan jardutea, tokiko jarduera-protokoloak eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako ekintza-plana prestatzeko.
- Etxeko tratu txarren edota sexu-erasoen ondorioz norbait hilez gero, erakundearen erantzuteko protokoloaren aplikazioan parte hartzea.

I.11. EUDEL

- EUDElen web orriaren bidez hitzarmen eta protokolo hauek hedatzea: erreferentziazko erakunde arteko Hitzarmena, eta EUDElek ordezkariak dituen partaidetza-organoetan garatzen eta lantzen diren gainerako jarduerak eta protokoloak; babes-agindua gizarte-zerbitzuen eremuan

.....

aplikatzeko protokoloa; eta etxeko tratu txarren edota sexu-erasoen ondorioz gertatutako heriotzen aurrean jarduteko protokoloa.

- Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktima diren emakumeei laguntzeko tokiko protokoloak erabakitzeko jarraibideak hedatzea.
- Espazioak antolatzea, udaletako langile teknikoen artean emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko esperientziak trukatzeko, eta prebentzioan, detekzioan eta esku-hartzean jarduteko baliabideei, zerbitzuei eta ekiteko moduei buruzko hausnarketa egiteko.
- Alorrari dagozkion lege-ekimenak eta gainerako araudiak hobetzeko oharrak eta ekarpenak aztertzea eta planteatzea.
- Etxeko tratu txarren edota sexu-erasoen ondorioz norbait hilez gero erantzuteko protokoloaren aplikazioan parte hartzea.
- Berdinsarea–Berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako EAEko udalerrien sarearen kudeaketa.
- 2010eko azaroaren 25erako –emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna– kanpainarako produktuak diseinatzea eta EAEko udalerrien esku jartzea.
- 2010eko azaroaren 25erako –emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna– adierazpen-eredu bat prestatzea eta EAEko udalerrien esku jartzea.

I.12. LEGELARIEN EUSKAL KONTSEILUA

- Etxeko indarkeriaren eta sexu-erasoen alorreko lau ikastaro antolatzea. Ikastaro horiek ezinbestekoak dira genero-indarkeriaren edo sexu-erasoen biktimentzako berariazko ofiziozko txandan sartzeko edota jarraitzeko. Bizkaian bi ikastaro egin dira: ikastaro aurreratu bat, berariazko ofiziozko txandako abokatu guztientzat (315 pertsonen hartu dute parte); eta sarrera-ikastaro bat, berariazko ofiziozko txandan sartzeko nahitaezkoa (183 pertsonen hartu dute parte). Araban eta Gipuzkoan ikastaro aurreratu bat egin da lurralde historiko bakoitzean, eta 143 eta 185 pertsonen hartu dute parte, hurrenez hurren, ikastaro horietan.

II. JARDUERA-PROTOKOLOAREN BETETZE-MAILARI BURUZKO BALIOESPENA

II.1. EAE-KO FISKALTZA NAGUSIA

“Erkidegoko fiskaltzek lan handia egin dute 2010ean 2009an sinatutako genero-indarkeriaren arloko koordinazio-protokoloa eraginkorki aplikatzea lortzeko. Hala, bada, egiaztatu da fiskaltza horiekin harreman zuzena duten erakundeek protokoloa betetzen duela beren jardunean.

Fiskalen jardueraz esan behar da etxeko indarkeriari eta, horren barruan, genero-indarkeriari ahalegin eta dedikazio handia eskaintzen dietela, hiru fiskaltzetan sortutako arlo honetako sailen bidez, horrela, etxeko indarkeriaren fenomeno kriminalari erantzun eraginkorragoa emateko eta fiskalek konponbide eta irizpide ezberdinak ematea saihesteko.

Hain zuzen ere, Babes Agindua jaso duen biktima prozedura osoan zehar babesteko, une batez ere babesik gabe gelditu ez dadin, akusazio-idatzien artean honako hau eskatzen dugu fiskalok: "epaia zigortzailea bada Babes Agindua (edo kautelazko neurria) akusatuari zigor osagarriak bete arte iraunaraztea, Genero-indarkeriaren aurkako babes osorako neurriei buruzko Lege Organikoaren 69. artikuluan oinarrituta". Arazo hori konpondu da, epaitegi eta auzitegiek eskabidea onartu baitute.

Indarkeria-ekintzen biktima diren emakumeen babesari dagokionez, aipatzekoa da babes-aginduez gainera beste neurri batzuk ere hartu direla, hala nola, GPSak jartzea. Gipuzkoako Fiskaltzan aurreko urteetan baino gehiago erabili du biktimen kontrol-sistema hori, baina fiskalburuak sistema horrek Gipuzkoan ematen dituen zailtasun eta arazoak nabarmendu ditu, lurraldearen ezaugarri orografikoak eta herri txikiak direla medio. Gainera, frekuentzia-inhibitzaile asko daude eraikin ofizialetan eta zenbait ibilgailutan ere, lurraldeak bizi duen terrorismo-delinkuentziaren indarra dela eta; horregatik, halakoetan, zaintza telematikoko sistema horiek ez dute behar bezala funtzionatzen. Era berean, Gipuzkoako Ertzaintzak egiaztatu du ezarritako gutxieneko distantzia 500 metrokoa denean, erasotzaileak biktimari eraso nahi badu eta horrengana zuzentzan bada, patruila batek ez duela erreakzio-denborarik eta, hortaz, ezin duela biktima benetan eta eraginkorki babestu. Eta hori guztia 500 metroko urruntzea xedatu denean; are gutxiago balioko du, hortaz, distantzia txikiagoetan. Hori dela eta, Gipuzkoako fiskalburuak uste du zaintza-sistema telematikoa hori eraginkorragoa izan daitekeela Gipuzkoan daudenak baino herri handiagoetan, hots, 500 metro baino gehiagoko babes-zonak ezar daitezkeen hiri handietan.

Aurreko urteetan gertatu bezala, fiskaltzetan arazoak egin ohi dira genero-indarkeriatzat jotako gertaerak egiaztatzeko orduan, biktima batzuek beren bikotearen aurka ez deklaratzeko beren eskubidea baliatzen baitute (Prozedura Kriminalaren Legea, 416. artikulua). Horrelako egoerak ugariak dira; zenbaitetan epaitegian baliatzen dute eskubide hori eta beste batzuetan, berriz, ez dute dagokion salaketa jartzen ezta osasun-zentro batera joan ere. Horrela, aurrekoari ez deklaratzeko eskubide konstituzionala baliatzea gehitzen bazaio, artxibatze-eskaera iristen da gero. Zehaztu behar da horrelakoetan, lekuko zuzenak daudenean, akusazio-idatzia egiten dela; izan ere, erreferentziazko lekukoak eta, horrez gainera, parte mediko baten edo lekuko horiek (adibidez gertakarien tokira doazen ertzainak) azaldutakoaren bidez egiaztatutako lesioak badaude aztertzen dira kasuak.

Erreferentzia-lekukorik edo egiaztapen periferikorik ez dagoenean eta kontakizunak kontraesankorrak direnean akusazio-idatzia egiten da. Zigor-epaietan, apelazio bidez hel egiten zaienean, Probintzia Epaitegiak behin baino gehiagotan eta, batez ere, mehatxu-delituak direnean, apelazio-errekurtsoa onartzen du eta akusatua absolbitzen du; ulertzen baitu, funtsean, beste froga objektiborik ezean, ez dagoela arrazoirik biktimaren adierazpenari akusatuarenari baino sinesgarritasun handiagoa emateko.

Auziaren instrukzioan adostutako kautela-neurriak zein ezarritako zigorrak hausteak arreta deitzen digute egunez egun gisa horretako delituak ikusten ditugunoi, are gehiago hauste horiek tratu txarrak jaso dituen emakumearen baimen esplizitu edo isilarekin gertatzen direnean".

II.2. EMAKUNDE - EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA. (LEHENDAKARITZARA ATXIKITAKO ERAKUNDE AUTONOMOA).

"2005eko otsailaren 18ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak 9. artikuluan aipatzen duen gisara, "Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea da Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak bultzatu, taxutu, ebaluatu eta horiei buruzko aholkuak emateko ardura duen erakunde publikoa" da. Hau da, Emakunde bultzada-erakundea da funtsean eta, oro har, ez du arreta-eginkizunik.

Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko lanari dagokionez, Emakundek bultzatu du biktimen arretan diharduten erakunde eta elkarteek II. Erakunde Arteko Akordioa sinatzea. Hala ere, II. Akordio horren Jarraipen Batzordeko presidentea izanagatik (Akordioaren bosgarren klausularen arabera), Emakundek ez du eskumenik emakumeen aurkako indarkeriaren biktimekiko arretan.

Hori guztia dela eta, aipatu behar da II. Akordioan jasotako Jarduera Protokoloak biltzen dituen neurriak ez daudela lotuta Emakundek emakumeen aurkako indarkeriaren alorrean dauzkan eginkizunekin; hori dela eta, ez dirudi gomendagarria denik Emakundek bere iritzia ematea abokatu-elkargoek eta gizarte-zerbitzuek Jarduera Protokoloa betetzeko egindako lanari buruz, dela osasunaren arloan, dela poliziarenean, arlo judizialean zein hezkuntzakoan. Hain zuzen ere, arlo horietako guztietako jarduera (etxekeko tratu txarren eta sexu-indarkeriaren biktimentzako arretari lotutako) jasota dago II. Akordioko Jarduera Protokoloan.”

II.3. EUSKO JAURLARITZAKO HERRIZAINGO SAILA

“Ertzaintzaren egungo jardueran, Kalitatea Kudeatzeko Sistemak zuzentzen ditu etxekeko indarkeriaren eta/edo genero-indarkeriaren alorreko ekintzen ondorioz gauzatutako polizia-jarduera guztiak: larrialdietan arreta ematea, tratu txarraren biktimari eta haren ardurapekoei laguntzea, salaketak izapidetzea, babes-eskaerak, erasotzailearekin jardutea, eta dagokion espedientea kudeatzea.

Kalitatea Kudeatzeko Sistemaren barruan, etxekeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren biktimekin egindako lanean hobekuntzak egiteko eta sakontzeko ekintza-plana ezarri zen 2010erako. Plan horretan *hobetzeko eremu* batzuk zehaztu ziren, eta eremu bakoitzean jarritako helburua lortu da, kasu guztietan. Helburuak hauek ziren:

- 1) Prozesuari lotutako adierazle guztien estandarrari %93tik gora eustea. Helburu hori adierazle guztietan lortu da, eta haietako batzuen berri emango dugu, argigarri moduan:
 - a. 0301: biktimari BORTXA telefonoa eskaini bazaio eta biktimak onartu badu, haren esku jarri da 12 ordu igaro baino lehen, eta espedientearen zehaztu da zer ordutan eta egunetan onartu duen biktimak, eta zer egunetan eta ordutan jakinarazi zaion biktimari telefonoa hartzeko moduan dagoela.
 - b. 0305: arriskuaren balioespena egin da, honako kasu hauetan, gutxienez: EI/GI gertaera berri bat jasotzen duen Zutabe jarduera itxi ondoren, EI/GI salaketa bat aurkeztu ondoren, D-41 akta, G27 estreinakoz bidali ostean, babesa emateko epailearen erabakia jaso ondoren, eta biktimarekin aldi berean behingo elkarrizketa izan ostean.
 - c. 0402: babes-aginduen eskaera epaitegira izapidetu da, diligentzia amaitu eta 24 ordu igaro baino lehen, baldin eta atxilotutako pertsonarik ez badago.
 - d. 0506: arriskuaren balioespena operazio-buru arduradunaren txandan egin da.

.....

- e. 0603: jarritako babes-neurri polizialak dira esleitutako arrisku-mailaren arabera.
 - f. 0702: babes-aginduren eskabidearen edukiari buruzko informazioa eman zaio biktimari, ofiziozko abokatu bat izateko eskubidea jakinarazi zaio, eta dagozkion gizarte-zerbitzuak daudela adierazi zaio, horretarako sortutako aktaren bidez (D08 akta, EI/GI diligentzien multzokoa). Egoerak eragozten badu, jasota geratzeko diligentziaren bidez adieraziko da (D14).
 - g. 0705: lesioei argazkiak ateratzea edo filmatzea biktimaren baimenarekin egin da, horretarako sortutako diligentzian adierazi bezala (D46).
- 2) Interesatutako aldean gogobetetzea neurtzeko inkestetan, hiru lurraldeetako batez besteko gogobetetze-indizeari 9tik gora eustea. Helburua lortu da. Biktimen gogobetetze-indizeak jakiteko, telefono bidezko inkestak egiteko metodo bat aplikatzen da, eta bi galdera-sorta desberdin eta beharrezko euskarriak erabiltzen dira, biktimei telefonoz elkarrizketa egiteko. 2010ean, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren biktima guztiei inkestak egiteko zerbitzua kanpokoen esku utzi zuen.
- 3) Egiten diren auditoria guztietan %82tik gorako batez bestekoa lortzea, eta unitate bakoitzak %80ko banakako lorpen estandarra gainditzea. Zentro guztien batez bestekoa %83,48koa da; horrenbestez, %82ko helburua gainditu da.
- 4) Arriskuen balioespenak: 2010ean EI/GIren biktimen arriskuaren balioespena egiteko erabilitako tresna Euskal Herriko Unibertsitatearekin lankidetzan diseinatu zen, eta informatika- eta telekomunikazio-teknologiaren dibisioak ezarri zuen Ertzaintzaren sistema informatikoan. Halaber, Epailatzarekin eta Fiskaltzarekin harremanak daude, arriskuen balioespenen emaitzak bidaltzeko sistema egituratzeari begira.
- 5) EI/GI Kalitatea Kudeatzeko Sistemaren zabalkundea: sistema hedatu da genero-indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren biktimei babesa eta laguntza ematearekin lotutako beste agentzia batzuei, eta EI/GI kasuen titularrak diren udaltzaingoetara zabaldu da.
- 6) Halaber, 2010ean eta gaurdaino, etxeko indarkeriari eta genero-indarkeriari dagokion kalitate-prozesua hobetzeko 24 ekintza zentzatzaille planteatu dira. Abian jarritako ia hobekuntza guztiak hobekuntza teknikoak dira: Zutabe aplikazio informatikoan, CICSean eta EI/GI espedientean egindako aldaketak; eta ez dute eraginik izan etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren biktimekin egindako polizia-lanaren prozeduran.
- 7) Halaber, 2010ean 9 kexa eta erreklamazio jaso dira, guztiak ere behar bezala tratatuak, ezarritako prozedurari jarraiki. Gai horretan agerian geratu da izapidetzeko prozedura bat behar dela, kexa eta erreklamazio

guztia egoki tratatzea eta eskumena duten unitateetara bideratzea bermatzeko, eta, horrenbestez, irtenbideak aurkitzeko eta erregistratzeko. Helburu hori kontuan hartuta, salaketak, kexak eta erreklamazioak kudeatzeko zirriborro bat prestatu da, kudeaketa "leihatila bakarreko" ereduaren arabera izan dadin: sarbide bakarra, barneko bideratzea, eta irteera bakarra, horrelako gertakari guztientzat. Sistema hori ezarpen-fasean dago.

- 8) Amaitzeko, langileen prestakuntzari dagokionez, 2010ean, Herritarren Segurtasunerako eta Ikerketa Kriminalerako ofizialorde kategorietan sartzeko prozesua gaitzizko ertza guztiek etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren alorreko prestakuntza jaso dute (167 pertsona). Gainera, eguneratzeko eta hobetzeko bi ikastaro hauetan parte hartu dute: etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren prebentzio-programan, eta alertei eta biktimak babesteari buruzko prestakuntzan (94 ertzain)".

II.4. EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

"Protokoloaren betetze-mailari buruzko balioespena egiteko, lehenik eta behin, testuinguruan kokatu behar dugu. Izan ere, protokoloak adierazten du *berdinen arteko tratu txarren gidaliburura* jotzeko. Horregatik, gure aburuz, ezinbestekoa da lehenengo atalean labur-labur aurkeztea eskola-eremuko berdinen arteko tratu txarren fenomenoari buruzko datuak, hau da, egoeraren deskribapena. Bigarren atalean, protokoloa abian jartzeko detektatu ditugun zailtasunei buruzko balioespena egingo dugu.

Azpiratu behar da ISEI-IVEIk (Irakas-sistema ebaluatu eta ikertzeko erakundea) *berdinen arteko tratu txarrei buruz* Euskadin aldiro egiten dituen ikerketetan, oraingoz, tratu txarren moten artean ez direla berariaz kontuan hartzen ez jazarpen sexista, ez sexu-erasoak, ez neskatoen aurkako indarkeria; bai, ordea, sexu-jazarpena.

Gaur egun, Saila hausnarketa-prozesuan dago, hain zuzen, datu horiek jasotzeko premia aztertzen, bai ISEIk egiten dituen ikerketen esparruan, bai bestelako erregistroen bidez.

A. Egoeraren deskribapena

Tratu txarren biktima izan direla adierazi duten ikasleen ehunekoaren bilakaera berdintsua izan da Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan. 2008an behera egin zuen, 2005eko ikerketa erreferentziatzat hartuta, baina 2009an gora egin du berriz ere (1,3 puntu Lehen Hezkuntzan, eta 1,0 puntu

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan). 2009an tratu txarrak pairatu dituztela adierazi duten ikasleen ehunekoa 16,9koa da Lehen Hezkuntzan, eta 11,9koa DBHn.

Ikasleen sexuaren araberako analisiari dagokionez, 12 tratu txarretako bat – gutxienez– “askotan” eta/edo “beti” pairatu dutela adierazitako Lehen Hezkuntzako mutikoen ehunekoa handiagoa da, neskatoena baino; baina, ikusi dugu, estreinakoz, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ehunekoak parekoak direla. Lehen Hezkuntzan, mutikoen eta neskatoen artean 3,6 puntuko aldea dago; aitzitik, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, bi sexuei dagozkien ehunekoak antzekoak dira (%11,4 mutilen kasuan, eta %11,8 nesken kasuan).

Horrenbestez, eduki sexista duen jazarpena bereiztea bideratuko duen analisia egiteko premia nabari da, baita datu horiek genero-ikuspegitik aztertze beharra ere. Analisi horiek informazioa emango digute, genero-sozializazioak –eta, zehazki, mutilek maskulinitate tradizionalaren ereduak bereganatzeak– bullying fenomenoan eta biktima/erasotzaile rolen bereganatze bereizietan duten eragina zenbatekoa den jakiteko.

B. Protokoloa abian jartzeko zailtasunak

- Protokoloak adierazten du berdinen arteko tratu txarren gidaliburura jotzeko; baina, gidaliburu horretan, 2010ean jazarpen sexista ez zen jazarpen-moten artean ageri. Gidaliburuaren gaur egungo bertsioan, bai, sartuta dago.
- Irakasleek zailtasunak dituzte jazarpen-kasuak agerian jartzeko eta bereizteko. Jazarpen sexista baten eta/edo sexu-erasoen aurrean daudela eta protokoloa aplikatu behar dela bereizteko garaian ere zailtasunak egon daitezkeela deritzogu.
- Ikastetxeetan jazarpen sexistaren alorreko zenbat kasu egon daitezkeen jakiteko zailtasunak daude; izan ere, orain arte ez zegoen jazarpen-mota gisa sailkatuta, eta ez dago erregistrorik, bullying kasuetan eduki sexista dutenak bereizten eta zenbatzen dituenik.
- Sailak jazarpen-kasuei buruz daukan informazioa bakarra ikastetxeek bahetutakoa da, ikastetxeen ardura baita gertakariak hezkuntza-ikuskaritzari jakinaraztea. Horren ondorioz, litekeena da Sailean erregistratzera iritsi gabeko kasuak gertatu izana.
- Protokoloak aurreikusten du hezkuntza-komunitateak salatzea tratu txarrak eta sexu-indarkeriazko kasuak; baina, ez du aurreikusten kasu horiek identifikatzeko lagungarri izango den neurririk, ezta gertatu baino lehen detektatzeko baliabiderik ere.
- Protokoloa derrigorrezko hezkuntzako ikastetxeetan aplikatzekoa da, baina profil guztietara eta irakaskuntza guztietara egokitze gaitasuna ebaluatu behar litzateke, Hasierako Lanbide Prestakuntzako zentroak eta

Lanbide Heziketako zentroak kontuan hartuta, baita helduen hezkuntza eta unibertsitateetako ikasleak ere.

C. Balioespen globala

Balioesten da jarduera-protokoloak prozedura egokia duela, bestelako tratu txarretan aplikatzen dena baita; horrenbestez, ikastetxeek ezagutzen duten prozedura da, eta aurreikusitako bide formalak jarraitzen ditu. Hala eta guztiz, haren inplementazio-maila hobetzeko neurriak hartu behar direlakoan gaude. Esate baterako:

- Berdinen arteko tratu txarren gidaliburua genero-ikuspegitik berrikustea, eta gidaliburu horretan jazarpen sexista eta sexu-jazarpena aintzat hartzea, jazarpen-mota gisa.
- Jazarpen-mota horrek ikastetxeetan duen eragina hobeto ezagutzea, eta neskei eta mutilen buruzko datu desberdinen genero-analisia egitea.
- Kasuak erregistratzeko baliabideak diseinatzea.
- Hezkuntza-komunitatean inplikaturako profesionalen (ikuskatzaile, irakasle...) prestakuntza areagotzea, tratu txarren kasuak garaiz antzemateko aukerak hobetzeko.
- Protokoloaren zabalkundea hobetzea, eta protokolo hori hezkuntza-komunitatean sozializatzea, informazio- eta hedapen-ekintza sistematiko eta aldizkakoen bidez.
- Protokoloarekin batera, ikastetxeetan arazoak garaiz detektatzeko bestelako neurriak eta/edo prozedurak ezartzea.
- Protokoloa egokitzea derrigorrezko irakaskuntzaren eremutik kanpo dauden kolektiboetara, hala nola helduen hezkuntzara eta unibertsitateetara”.

II.5. EUSKO JAURLARITZAKO JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

“Lehenengo ekintzari dagokionez, erabat betetzen da. Hitzarmenean aurreikusitako gertaeraren bat salatzeraz etortzen diren emakume guztiei laguntza ematen zaie. Horrenbestez, abokatu baten laguntza nahi duten biktime guztiek doan jasotzen dute laguntza hori, prozesuaren lehen faseetan.

Berreziketa programan –baliabide hori emakumeak babesteko beste mekanismo bat bezala ulerturik– organo judizialeetatik bideratutako gizon guztiak hartu dira. Horrenbestez, betetze-maila erabatekoa da. 2010ean 90 gizonekin esku hartu da”.

II.6. EUSKO JAURLARITZAKO ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

“Hitzartutako konpromisoen betetze-mailari dagokionez, balioespen positiboa egiten dugu, honako alderdi hauetan aurrera egiten ari garela irizten baitiogu:

- A. Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei etxebizitza bermatzeko araudia daukagu, eta zuzen aplikatzen da.
- B. Erakundeen koordinazio-egituretan parte hartzen ari gara, hala arlo politikoan nola teknikoan.
- C. 2010ean beste antolamendu-egitura batzuekin lankidetzan jardun dugu, haiek eskatutako alorretan (batez ere Emakunderekin eta Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzarekin).
- D. Gure jarduera egokitzen ari gara, modu ordenatu eta estrategikoan, genero-indarkeriari aurre egiteko, Sailaren eskumeneko gizarte-eremuan. Horregatik, hain zuzen, Sailaren programan ardatz zuzentzaile bat sistematizatu dugu.
- D. *Hobetzeko alderdiak* detektatu ditugu, eta, aurreikusitako ekintzekin batera, honako jarduera hauek planifikatu ditugu 2011rako:
 - Eusko Jaurlaritzako Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak, Berdinsareak edo beste erakunde batzuek bultzatutako informazio-kanpainen zabalkundean laguntzea, Sail guztian heda daitezen.
 - Informazio- eta sentsibilizazio-jarduerak gauzatzea, Sailean eta Sailari atxikitako enpresa publikoetan kargu politikoak dituzten pertsonen emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako jarrera irmoa adieraztea bideratzeko.
 - Sailean eta Sailari atxikitako enpresa publikoetan diharduten gizonen artean emakumeen aurkako indarkeria arbuiatzeari lotutako trebakuntza-ikastaroak eta -jardunaldiak hedatzea.
 - Tratu txarrak pairatutako emakumeentzat etxebizitzak eskatzeari eta esleitzeari buruzko datuak biltzeko, aztertzeko eta ustiatzeko tresnak analizatzea, eta, behar izanez gero, optimizatzea.
 - Eskareei eta premiei buruzko datu estatistikoen analisisa egitea, hobetzeko edo sendotzeko premiak zehazteko.
 - Informazioa eta lehendik dauden sistemak koordinatzea, eta estatistiken zabalkundean eta informazioaren erabilpenean ahalegintzea.

- Sailean lan-talde bat sortzea, gaur egungo esku hartzeko programen eraginkortasuna aztertzeke, eta haien indarguneak eta hobetu beharreko alderdiak ezagutzeko.
- Hobetzeko proposamenak prestatzea jarraipena egiteko, lortutako eragina egiaztatzeke, eta programen, aginduen eta abarren eraginkortasuna frogatzeko, diskriminazio anizkunari lotutako aldagaiak aintzat hartuta.
- Hirigintzaren eta kriminologiaren arteko erlazioa genero-ikuspegitik aztertzea.
- Sailari atxikitako enpresa publiko eta zuzendaritzetan gidaliburuak, ikus-entzunezko materialak eta abar hedatzea, jazarpen sexista zer den eta zer ez den azaltzeko, eta tratamenduari eta prebentzioari buruzko informazioa zabaltzeko.
- Enpresa publikoetan eta zuzendaritzetako langileen artean jazarpen sexistaren alorreko arau guztiak hedatzea.
- Prebenitzeko eta esku hartzeko protokolo orokorra prestatzea eta abian jartzea. Protokolo horrek erakunde bakoitzaren berariazko egoerara egokitzeko modukoa izan behar du.
- Protokoloen jarraipena eta ebaluazioa egiteko mekanismoak jarri behar dira.
- Indarkeriaren biktimak diren emakumeen etxebizitza-eskaeren jarraipena egitea, estali gabeko premiak identifikatzeko, eta gabezia horiek betetzeko mekanismoak jartzeko.
- Lan-taldetan parte hartzea, genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeei lurraldean eta udalerrian ematen zaien arreta aztertzeke, praktika onenak identifikatzeko, eta gainerako udalerri eta mankomunitateekin partekatzeke”.

II.7. EUSKO JAURLARITZAKO ENPLEGU ETA GIZARTE GAJETAKO SAILA

“Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimak diren emakumeei laguntza hobe emateko erakunde arteko II. Hitzarmenean parte hartzeari buruz balioespen positiboa egiten du Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak.

Helburua da ezarrita dauden jarduerekin jarraitzea, eta II. Hitzarmenaren aplikazioa hobetzen aurrera egitea. Ildo horretan, 2011n erakunde arteko talde teknikoaren bidez lanean jarraituko dugu. Gizarte Zerbitzuetako teknikariek parte hartuko dute taldean; batetik, harrera-baliabideen lan-taldean, harrera-baliabideen premia nagusien diagnostikoa egin eta udalerrien eta lurraldeen artean baliabideak optimizatzeko lan-proposamenak egitea helburu hartuta; eta, bestetik, erakunde arteko II. Hitzarmenaren eta jarduera-protokoloaren diagnostikoari ekingo zaio: hitzartutako akordioek betetze-maila, esku hartzean eta erakunde arteko

koordinazioan hobetu daitezkeen alderdiak (gure kasuan, gizartean esku hartzeko eremutik) eta hobetzeko proposamenak prestatzea.

Halaber, Immigrazio Zuzendaritzaren eta Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren artean hasitako lan-ildoak jarraipena izango du 2011n, emakume etorkinen berezitasunei heltzeko. Atzerriko herritarrek genero-indarkeriaren kontzeptuari buruz duten jakite-mailan antzemandako premiak, biktimen eskubideak, prebentzioa eta arreta bideratzeko politikak eta zerbitzuak, eta genero-indarkeriari aurre egiteko baliabideetara eta arreta emateaz arduratzen diren langileengana jotzea baldintzatzen duten faktoreak aintzat hartuta, premia batzuk edo hobetu beharreko alderdi batzuk detektatu dira: informazio-prozesuak egokitzea, emakume etorkin guztiengana heltzeko, egoera desberdinetara moldatuta, informazioa gehiegizkoa eta iluna edota itxaropen faltsuak eragiten dituen izan ez dadin; hori guztia kontuan hartu behar da funtsezko informazioa bereganatu dutela bermatzeko: nora jo dezakete, zer eskubide dituzte, eta zer baliabide dauzkate eskura”.

II.8. EUSKO JAURLARITZAKO OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

"Osasun-jarduerako protokoloa betetzeko lanean aurrera egiten lagundu duten faktoreak, zaildu dutenak eta horiek txertatzearen alderdi onak.

1. Faktore lagungarriak: Osasun eta Kontsumo Saileko eta Osakidetzako zuzendari eta kudeatzaileak lan-ildoari emandako sostengua; berdintasunari eta genero-indarkeriari buruzko prestakuntza jaso duten pertsonak lan-taldera gehitzea; euskal osasun-sare publikoko prestakuntzaren arduradun bat lan-talde teknikoan sartzeari; parte-hartzea baliatzen duen metodologia baten bidez elkarreragitean oinarritutako prestakuntza; osasun-erakundeen barneko programa-kontratueta eta erkidegoetako jarduera-planetan genero-indarkeria jasaten duten emakumeei arreta integrala ematera bideratutako helburu eta jarduerak sartzeari; bai eta, horren ondorioz, erakundeen eta sektoreen arteko beharrezko koordinaziora eta prozesu horretan jarraipenari eta laguntzari garrantzia ematera bideratutakoak ere.
2. Zailtasunak: batzuetan osasun-langileen sozializazioak berdintasun- eta desberdintasun-egoerak barneratzea edo zalantzan jartzea zailtzen duela; osasun-lanbideetako gradu-aurreko eta gradu-ondoko ikasketetan genero-indarkeriari buruz dagoen prestakuntza falta; emakumeen konfidentzialtasunarekin lotutako alderdi etiko eta legalak.
3. Alderdi onak: prestakuntza-jardueretan parte hartu duten pertsonen gogobetetasun-maila altu eta oso altuak. Koordinazio-lanetan aritu diren pertsonen gogobetetasun-maila altuak, eta komunikazio-bideak hobetzeko gai honetan lan egiten jarraitzeko beharra.

Ikaskuntzak, arrakastaren faktore nagusiak eta etorkizunerako gomendio edota proposamenak

Inplikaturako beste sektore batzuekin modu koordinatuan lan egiteak arazoa hautemateko eta horri aurre egiteko gaitasuna hobetzen du; izan ere, gaiari lotutako eragileak ezagutzeaz gainera, batera lanean arituz eta jarraipena eginez, gauzatzen ari diren jardueren berri izan daiteke, bai eta emakumeek zein mendekotasunak dituzten beste pertsona batzuek jasaten dituzten indarkeria-egoerak gainditzeko arrakasta-aukera handiagoen berri ere.

Gertakariak eta proiektuaren alderdi ahulei buruzko iruzkinak

Honako hauek aipa daitezke: osasun-langileen ordezkioak lortzeko zailtasuna, aurrekontuak doitzea dakarren krisi ekonomikoa eta osasunaren sektoreari eragiten dioten hainbat materietan prestakuntza-proiektu berritzaile ugari izatea.

II.9. ARABAKO FORU ALDUNDIA

“Balorazio ona eman zaio honako gizarte-zerbitzu hauen arreta-prozesuetan ezarritako printzipioak betetzeari: a) laguntza oso eta pertsonalizatua; b) bereizkeriarik gabeko berdintasuna, pertsonaren egoera zibila, sexu-joera, adina, sinismena edo ideologia, talde etnikoa, ekonomia-maila, urritasuna edo administrazio-egoera gorabehera; c) aurre-hartzea; d) adingabeen interesen defentsa; e) buruaskitasunaren eta normalizatutako bizimoduaren alde egitea; eta f) eraginkortasuna eta azkartasuna.

Hala ere, ahalegin handiagoa egin behar da oraindik kasu kasu beharrezkoak diren urritasunerako moldaketak gauzatzeko eta emakume atzeritarren hizkuntza-oztopoak leuntzeko. Bereziki, lan egin eta protokoloa aktibatu behar da beste helburu batera bidean: g) bigarren mailako biktimizazioa saihesteko.

Horretarako, asko hobetu behar da oraindik inplikaturako erakundeen arteko koordinazioa, ordea. Garrantzitsua da batetik, elkar ezagutzean aurrera egin eta sakontzea, bestetik, EATTko partaideak espezializatzeko prestakuntza garatzea (beste teknikari batzuei ere aplikatu ahaliko zaiena) eta, azkenik, erakundeek elkarri kasuak sistematikoki bidaltzeko prozedurak aktibatzea bidalketa-eredu komun baten bitartez (interesatuak sinatutako baimenarekin).

Noizbehinkako *hutsuneak* ere hauteman dira ordea, sistematikoak ez badira ere, Jarduera Protokoloa betetzeko orduan:

.....

- Epaitegietan tratu pertsonalizatuago bat emateko beharra, eta prozesu judizialak arintzea lortzea. Informazio gehiago ematea zitazioaren arrazoiari buruz eta erabakiak hartzeko aintzat hartu beharreko alderdi garrantzitsuei buruz; termino judizial batzuk azaltzeko beharra, bereziki, zenbaitetan nahasgarriak edota ulertzen zailak izan baitaitezke interesatuentzat.
- Ertzaintzaren polizia-etxeetan salaketa edo babes-aginduaren eskaera izapidetu aurretik abokatu baten laguntza eskaini eta ematea. Salatzailea eta salatua epaitegietan aurki daitezen saihesteko neurriak aktibatzeaz gainera, sarbide-kontroleko ilaran ere topo egitea saihestu behar da, genero-indarkeriagatiko epaiketa azkar batera deitzen dituztenean.
- Polizia-etxean abokatuaren laguntza jasotzeko itxaron behar den denbora aztertzea, batzuetan luzaroegi itxaron behar izaten baitute abokatuak beste kasu batean zegoelako eta, gainera, landa-gune batera joan behar zuelako.
- Esku hartzen duten beste erakunde batzuek kasuak gizarte-zerbitzuetara bideratzeko beharra.
- Arrisku-egoera aztertzeko fasean sistematikoki informazio-eskaerak egitea gizarte-zerbitzuetara, baita epaiketa azkarretarako balizko froga gisa ere.

Azkenik, hona hemen *protokoloak jaso beharko lituzkeen alderdiak*:

- Biktimak berak ez, baina senideek edo auzokoek indarkeria-egoera baten berri ematen dutenentarako jarduera-prozedura. Prozedura protokolizatu beharko litzateke, hau da, gertakaria erregistratzea, gizarte-zerbitzuak poliziarekin, fiskaltzarekin eta osasun-erakundeekin koordinatzea, etab. Kasu horien jarraipen-protokoloa ere zehaztu beharko litzateke.
- Esku hartzeko prozedura aztertu eta ezartzea beren buruak indarkeriaren biktimatzat jotzen dituzten eta laguntza (adibidez psikologikoa) eskatzen dute adingabeentzat (16-17 urte); era berean, beren gurasoei horren berri ez ematea nahi duten kasuetarako esku-hartze zehatza aztertzea.
- Kasuak gizarte-zerbitzuetatik epaitegira igortzeko eredia erakundeen arteko bidalketa-eredu gisa baliozkotzea, erakunde guztietarako baliozkoa izan dadin (osasun-erakundeetatik gizarte-zerbitzuetara edo gizarte-zerbitzuetatik ertzaintzara).
- Erakundeen arteko koordinazioaren oinarritzko jarraibideak babes-aginduei dagokienez.
- Hezkuntza-alorrean hartu beharreko jarduketako prozedura honako egoera hauetan:

o ikasle baten familian tratatu txarrak edo genero-indarkeriako egoera bat dagoela jakiten denean, adingabeak ere egoeraren biktima baitira.

o genero-indarkeriaren biktima direla jakin dadila, erasotzailea ikastetxeko giroarekin lotuta ez badago ere.

o urruntze-agindua berri izan dezatela eta adingabeak babes ditzatela, baita adingabeen helbidea isilean gorde ere.

- Babes-agindua duten biktimen etxeetarako beharrezko babesa eta, zehazki, harrera-pisu eta -etxeetarakoa.
- Beste hizkuntza eta jatorri batzuk dituzten emakumeei buruzko informazio bereziak, baita egoitza-baimenik ez dutenei buruzkoak ere; horiek immigrazioaz eta genero-indarkeriaz arduratzen den lan-talde batek egin ditu, Eusko Jaurlaritzaren buruzagitzapean.”

II.10. BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

“Etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeak laguntzen diharduten Emakumea eta Familia Zerbitzuko langileek honako egoera hauek egiaztatu dituzte Akordioa betetzeari dagokionez:

Gizarte Zerbitzuak

Oinarrizko Gizarte Zerbitzura jotzen duen emakumeek arreta eta informazioa jasotzen dute. Dauden baliabideen berri eman eta beren egoera emozionalari doitutako sostengua eskaintzen zaie. Zerbitzu espezializatu honetara bideratutako kasuetan ez da ohikoa Akordioan aurreikusitako txostenak (gizarte-zerbitzuetako langileek bete beharreko informazio-bilketako ereduak) egitea.

Foru-zentroetan hartutako emakumeekin, gizarte-zerbitzuekiko lankidetzak ona da diru-laguntzak izapidetzeko edo jarduerak koordinatzeko orduan; horrela, erantzun azkarrak aurkitzen zaizkie, oro har, dauden arazo edo egoerei.

Harrera-baliabideei dagokienez, aurrerapausoak hauteman dira arlo horretan eskumenak dituzten udalen jardunean; horrela, ohikoa da salaketarik ez eskatzea, errolda-agiririk egon gabe ere finkatze-egoera aintzat hartzea eta etxeko indarkeriako kasuei ere arreta ematea, genero-indarkeriako ohiko kasuez gainera. Hala ere, arazoak izan dira udalerriren batean (Galdakaon). Herri horretako tratatu txarren biktima bat hasiera batean Aldundiaren larrialdiko harrera-zentroan hartu zuten baina, ondoren, ezin izan da dagokion erakundearen arteko koordinazioa ezarri, Udaleko gizarte-zerbitzuek ez baitute bere gain hartu etxeko indarkeriaren biktimenzako arretaren alorrean zegokien eskumena. Hala, bada, Bizkaiko Foru Aldundiak larrialdiko harrera eman zion arren, beti ere egiten den bezala, baita beren harrera-baliabideak dituzten udalerrietatik datozen emakumeekin ere

(Galdakaoren kasua azken hau da), udaletako gizarte-zerbitzuei dagokie informazioa ematea, egoera aztertzea, orientazioa ematea eta arazoren bat badago, hala badagokio, beste baliabide espezializatuago batera bideratzea. Aipatutako kasuan emakume hark ez zuen zegokion arreta jaso bere herriko gizarte-zerbitzuen aldetik.

Emakumea eta Familia Zerbitzu Espezializatua

Larrialdiko Harrera Zerbitzu bat dago tratu txarren biktimak diren emakumeentzako, seme-alabak edo mendekotasunak dituzten pertsonak beren kargu izan edo ez izan. Zerbitzu horretan 12 pertsonarentzako tokia dute eta urritasunak dituztenentzat moldatuta dago; gainera, espezializatutako langileak daude une oro etxeko indarkeriaren biktimei eta beren kargura umeak edo mendekotasunak dituzten pertsonak dituzten emakumeei lehen harrera bermatzeko. Hala, arazo horietara moldatutako laguntza-zerbitzuak eta segurtasun-neurriak eskaintzen dituzte; horrek zubi-lana egiten du gainerako harrera-baliabideetara, horretarako beharra ikusten bada. 2010ean 106 sarrera izan dira, 1.010 pertsonari dagozkionak, hots, emakumeak eta adingabeak edo haien kargu dauden mendeko pertsonak. Sarrera horietatik 57 emakumezko biktimak izan dira (55 emakume, guztira); horrela, azken urteotako sarreraren beherakadak bere joera jarraitu du (107 sarrera 2008an eta 87 sarrera 2009an). 55 emakumeetatik 34 etorkinak dira, hots, hartutako emakumeen %61,81 eta, hortaz, aurreko urteotako goranzko joerarekin bat dator datu hori. Artatutako emakumeen profilari dagokionez, 5ek (%9) lotutako beste arazo batzuk dituzte, nahaste psikologikoak edo gai toxikoen kontsumoa, besteak beste. Biktimentzako dauden baliabideekin ezin zaie erantzun egokia eman, ordea. Horrelakoetan emakumeak zentro berezietara bideratzen direnean, zentro horiek gutxi direla eta beteta daudela aurkitzen dugu oraindik, eta itxaron zerrenda luzeak dituztela. Hori dela eta, aztertzen ari dira laster baliabide berezi bat abiarazteko beharra, irailaren 11ko 148/2007 Dekretuan jasotakoarekin bat. Salaketa jartzeari dagokionez, nabarmentzekoa da 2010eko ehunekoa (%68,42) aurreko urtekoa (%86,2) baino nabarmen baxuagoa dela. Gora egin du, ordea, eskabidea egin ondoren babes-agindua ematen zaien emakumeen ehunekoa (%58,66 2009an eta %71,79 2010ean).

Larrialdiko Harrera Zerbitzuan artatutako emakumeen barruan, hauteman da oraindik ere emakume horietako batzuek itxaropen faltsuak izaten dituztela, eta eskaria oso altua dela; Zerbitzu horrek ezin ditu batzuek zein bestea ase. Eskariak gehien bat etxebizitza bat eta diru-laguntzak lortzeko izan ohi dira, emakumeek argudiatzen baitute zentroan sartutakoan baliabide horiek emango dizkietela esan dietela. Hori dela eta, beharrezkoa da emakumeekin harremanetan dauden erakunde eta pertsona guztiek informazio zuzena ematea haiek bere etorkizunari buruzko erabakiak har ditzaten, genero-indarkeriaren biktimak izatearen ondorioz benetan izan ditzaketen baliabideak aintzat hartuta, eta aintzat hartuta, orobat,

horiek lortzeko bete beharreko eskakizunak eta, dagokionean, itxaron beharreko denbora.

2010ean Larrialdiko Harrera Zerbitzuan hartutako emakume eta adingabe guztietatik 17 emakumek eta horien 18 seme-alabek behar izan zuten Bizkaiko Foru Aldundiko Gizartekintza Sailaren mendeko zentroetan epe ertain edo luzean gelditzea.

Foru Aldundiko Emakumea eta Familia Zerbitzuan, Larrialdiko Harrera Zerbitzua kudeatzeaz gainera Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetatik datozen epe ertain eta luzerako zentroetan sartzeko eskabideak ere aztertzen dira. Emakumea hartu ondoren, berriz, plan bat prestatzen zaio bere egoeraren, arazoen eta dauden baliabideen arabera.

Badago tratu txarren biktimentzako *epe ertain eta luzerako harretarako* egoitza-baliabide bat ere, emakumeei, beren seme-alabei edo haien kargu dauden mendeko pertsoneri arreta integrala ematen diena; zerbitzua gisa horretako pertsonetikiko esku-hartzean espezializatua da, eta zerbitzua kudeatzen duen arlo anitzeko langileek hainbat programa garatzen dituzte bai emakumeentzat eta bai horien seme-alabentzat ere. Zentroak 26 pertsonentzako tokia du, 10 toki emakumeentzat eta 16 seme-alabentzat, gutxi gorabehera. 2010ean 9 emakume eta horien kargura zeuden 10 adingabe egin dira zentro horretan. Bederatzi emakume horietatik 4 etorkinak ziren, hots, sarrera guztien %44. Ehuneko hori Bizkaiko etorkinen ehunekoarekin alderatuta agerian gelditzen da emakume horien baliabide gabezia eta prekarietatea, beren etorkin-izaeratik eratortzen dena. Artatutako emakumeen %89k salaketa jarrita zuen eta %75ek babes-agindua edo kautela-neurria zeukaten.

Nabarmentzekoa da 2010ean aurreko urteko goranzko joerak jarraitu duela tratamendu psikiatrikoa behar izan duten emakume-kopuruari dagokionez: 9 emakumetik 6k behar izan dute. Horrek emakumeekin eta beren familiekin esku hartzea zailtzen du, izan ere, esku-hartzea egoera hain berezi horietara moldatu behar da emakumeen autonomia-prozesuan eragin kaltegarriarik izan ez dezan, ez eta zentroaren funtzionamenduan eta pertsonen arteko harremanetan ere.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren *Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako babestutako etxebizitzaren arloko Ekintza Planari* dagokionez, esan behar da programa hori oso onuragarritzat jo dela, izan ere, emakumeek beren “normalizazio” pertsonalera eta sozialera bidean aurkitzen duten oztopo nagusietako bat konpontzeko bidea ematen du, etxebizitza bat eskuratzearena, alegia. Gainera, arazo horrek harrera-zentroetan luzaro egotea dakar eta horrek emakumeen hobekuntza-prozesua zailtzen du. 2010ean emakume batek jaso zuen esleipen zuzenez alokairuko etxebizitza bat. Eskabidea ekainean

egin eta irailean ebatzi zen; horrela, izapidetzea aurreko urteetan baino azkarrago joan dela hauteman dugu.

Babes Aginduaren Legea eta dagozkion Koordinazio Protokoloak indarrean sartu direnetik, *Biktimari Laguntzeko Zerbitzura* bidaltzen da Bizkaiko Foru Aldundiaren kargura emakumeentzako harrera-zentroetan dauden eta babes-agindua duten emakume guztien Laguntza Neurriei eta Gizarte Babesari buruzko Txostena. Txosten horretan ematen da irteeraren edo beste baliabide batera bideratu izanaren berri. Gizarte-zerbitzuen alorrean Genero Indarkeriaren Aurkako Babes Osorako Neurriei buruzko Legearen eta etxeko indarkeriaren biktimak babesteko aginduaren eraginkortasuna bermatzeko Koordinazio Protokoloan ezarritakoaren bat, datu-bilketako txostena ere bidaltzen da oraindik, 2005eko azaroaren 25ean "Sexu-indarkeriaren eta etxeko tratu txarren biktima diren emakumeentzako laguntza hobetzeko II. Erakunde Arteko Hitzarmen"aren Jarraipen Batzordeak onartu zuena. Koordinazioa, funtsean, agiri hori bidaltzean datza. 2009ko urtarrilean Emakumearen Aurkako Indarkeriaren Koordinazio Zentro berria ireki zenetik harreman-jario ona izan da zerbitzu horretako teknikari arduradunekin; modu azkarrean erantzun diote Emakumea eta Familia Zerbitzuak agiriak edo informazioa eskatu dituen bakoitzean.

Bizkaiko Emakumea eta Familia Zerbitzuan hainbat programa berezi garatzen ari dira tratu txarren eta sexu-erasoen biktimentzat.

Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak gertatzen direnean eta bereizketa-prozesutik eratorritako arazo psikologikoak daudenean familian esku hartuz laguntza psikologikoa emateko programan 932 pertsona artatu dituzte 2010ean (512 pertsona lehen aldiz). Programak etxeko indarkeriaren biktima heldu zein adingabeez gainera, pertsona erasotzaileak eta indarkeriaren biktimen senideak ere artatzen ditu, azken horiek indarkeriaren biktima zuzentzat jotzen baitira. Bana-banako laguntza psikologikoa eta talde-terapia baten parte hartzeko aukera ere eskaintzen du, beren bikotearen edo bikote ohiaren eskutik etxean tratu txarrak jaso dituzten emakumeentzako bana-banako terapiaren osagarri gisa. Programan zuzenean eta berehala parte hartzeko aukera dago, ez da baldintzarik jartzen eta ez dago itxaron zerrendarik. 2010eko abenduaren 15ean kontratu berri bat esleitu zen lehiaketa publiko bidez, 2010eko abenduaren 15etik 2010eko abenduaren 14ra indarrean egongo dena. 1992an abiarazi zenetik zerbitzua asko handitu da, mailaz maila, hazi den eskariari erantzuteko; gaur egun 429 arreta-ordu eskaintzen ditu astean. Estaldura zabaltzeak programaren eskaintza indartu du, ez bakarrik Bilbon, baina Lea-Artibain (astean bi egunez eskaintzen du arreta), Enkarterriak Mankomunitatean eta Balmasedan (egun bana astean, 7 ordu).

Emakume eta gizonentzako *Aholkularitza Juridikoko Zerbitzua* ere eskaintzen da, Familia Zuzenbidearen alorrean, baita tratu txarren edota sexu-erasoen ustezko egoeretan ere, horrela bikoteak bereiztean egon daitezkeen familia-gatazkei eta

sendian gerta daitezkeen indarkeria-mota guztiei aurre hartzeko eta, sarritan, aurre egiteko asmoarekin. Zerbitzu hori Emakumeen Eskubideen Aldeko Clara Campoamor Elkarteak ematen du 2000. urtetik, Gizartekintza Sailarekin sinatutako hurrenez hurrengo hitzarmenen bidez. 2010eko urtarrilaren 15ean sinatu zen urte horretako Lankidetza Hitzarmena, 2010eko abenduaren 31ra arte indarrean egon dena. 2010ean 404 kontsulta jaso dituzte, 398 pertsona berriak izan dira; horien artean 81ek tratu txarrak direla bide jo dute zerbitzu horretara eta 24k sexu-erasoen ondorioz.

Deribazio Judizialaren bidezko Familia Elkargunea programari dagokionez, esan behar da 2010ean diharduen lan-taldeak 2008an izapidetutako kontratu-aldaketaren ondorioz ezarritako osaera eta langile-hornidura berbera duela. Horrela, lau hezitzaile izaten dira astelehenetik ostiralera eta asteburuetan 10 hezitzaile, txandaka. Gainera, langile-errefortzuak jartzen dira zerbitzuak behar duenean. Bitartekaritza-zerbitzuak beste bi langile ditu, lanaldi osoan.

2010ean 435 adingabeen espedienteak aztertu dira (umeak eta nerabeak) eta, hortaz, %3,5eko igoera izan da 2009arekin alderatuta. Kopuru absolutuetan igoera txikia izan den arren, igoera esanguratsua da Bizkaian beste bi Familien Elkargune Zerbitzu ireki direla kontuan hartzen bada (Barakaldoko FEZ 2009ko bukaeran eta Enkarterrietako FEZ 2010eko otsailean).

Behar bezala hornitutako eta diziplina anitzeko eta espezializatutako langileak dituen toki bat eskaintzea da Familien Elkargune Zerbitzuaren funtsezko eginkizuna, tratu txarren biktima diren eta beren kargu seme-alabak dituzten emakumeen integritatea zaintzeko asmoarekin; emakume horiek babes-agindu bat izan ohi dute, erasotzailea urruntzeko neurri bat xedatzen duena, baina bere seme-alabak ikusteko bisita-erregimena ezartzen zaio. 2010ean izapidetutako 435 espedienteetatik 177 (%42) emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegietatik bideratu dituzte. 2010ean Familien Elkargunean espedientea irekita izan duten 155 familiatik (151 ama eta 4 aita) datozen 214 adingabek babes-agindua dute, erasotzailearen urruntze-neurria xedatzen duena. Datu hori azpimarragarria da, egoera horietan izaten den zaurgarritasun berezia aintzat hartuta. Nabarmentzekoa da, halaber, mota horietako kasuek gora egin dutela azken urteotan eta, dagoeneko, guztizkoaren %49,19 osatzen dutela. Programaren eginkizun orokorreaz gainera, kasu hauetarako esku-hartzean neurri bereziak abiarazten dira, bi gurasoen arteko topaketak ekiditera (bakoitzak bere itxarotedenborak errespetatzera behartuz) eta adingabeek zaindaria ez den gurasoa (amaren erasotzailea, aldi berean) bisitan datorrenean izan ohi dituzten antsietate-adierazpenak kontrolatzera bideratuak, batez ere. Gainera, ezarritako ordutegietan atzerapenak edo ez-betetzeak egon badira, horren berri ematen zaie dagozkien epaitegiei, biktima arriskuan jar baitezakete.

Eskumenen gaiari lotuta, eta deribazio judizialaren bidezko Familia Elkarguneei eragiten dion heinean, uztailearen 1eko 124/2008 Dekretua aipatu behar da, Euskal Autonomia Erkidegoan deribazio judizialaren bidezko Familia Elkarguneak arautzen dituen; izan ere, honela dio Dekretu horren 7.1. artikulua: "Gizarte-zerbitzuetan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak deribazio judizialaren bidezko Familia Elkarguneak sortu eta euren funtzionamendua bermatuko du, erantzukizun publikoko zerbitzu gisa, eta ekintza zuzeneko deklaratu dituzten Gizarte Zerbitzuei buruzko urriaren 18ko 5/1996 Legearen 9.2 artikuluan xedatuari jarraiki." Dekretu horretako Xedapen Osagarriak dio, gainera, Dekretua argitaratzen den unetik aurrera Eusko Jaurlaritzak deribazio judizialaren bidezko Familia Elkarguneko Zerbitzuak irekiko dituela eta, dauden eskaera aintzat hartuta, biztanleria gehieneko udalerriei lehentasuna emango diela.

Hala, bada, 7.1 artikuluan xedatutakoa betetze aldera, eta Bilbon ez zeudenez eskuragarri deribazio judizialaren bidezko Familien Elkargune Zerbitzua emateko baliabide material eta tekniko egokiak, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak bi erakundeen arteko lankidetzaren hitzarmen bat sinatzea proposatu zion Bizkaiko Foru Aldundiari. Hitzarmen horren bidez, Aldundiari agindu zion Bilbon deribazio judizialaren bidezko Familien Elkargune Zerbitzua kudeatzeko, Uribarri kaleko 1. zenbakian, eta lan hori arautu zuen. Hitzarmena 2010eko urriaren 27an sinatu zuten eta indarraldia urte hartako urtarilaren 1etik abenduaren 31ara arte finkatu; gainera, hitzarmena automatikoki luzatuko da urtez urte bi aldeetako batek besterik adierazi ezean.

Aurreko programaren osagarri gisa, 2007an Arreta Bereziko Familien Elkargune Zerbitzua izeneko programa abiarazi zen, beharrezkotzat jo baitzen Foru Aldundiko Umeen Zerbitzuak emandako babes-neurriak zituzten ume eta nerabeen beharrian berezietara moldatzen zen esku-hartze bat eskaintzea. Horrela, 2010ean Programa hori osatu duten zerbitzuek 113 adingaberi (81 familiakoak) eman die laguntza Emakumea eta Familia Zerbitzuaren eskutik, Umeen Zerbitzuarekiko etengabeko koordinazioan.

Etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeei eta horien seme-alabei zuzendutako Familien Esku Hartzeko Programa Espezializatua 2006ko maiatzetik da abian, indarkeria sexista jasan arren beren erasotzaileekin bizi diren edo elkarbizitzara itzultzeko arriskuan dauden emakumeei laguntzeko, bai eta horiek beren kargu dituzten seme-alabei ere. Esku-hartzea 2006ko hasieratik esleitu zen enpresa bereko langile-taldearen esku dago. Enpresa horrekin hainbat kontratu eta luzapen sinatu dira; azkenak 2010eko abenduaren 15etik 2011ko abenduaren 14ra arteko indarraldia du.

2010ean 61 emakume eta horien kargura zeuden 51 adingabe artatu ditu Programa horrek. Emakume horiekin guztiekin bana-banako esku-hartze espezializatua gauzatu dute diziplina anitzeko langileek; horrez gainera, taldeko

esku-hartze batekin osatu dute lan hori. 2010ean taldeko bi esku-hartze egin dira, 17 emakumeren parte-hartzearekin. Emakume horien kargu zeuden adingabeekin zeharkako esku-hartzea gauzatu da beti (beren amen bitartez), eta horietako 12 umerekin zuzeneko esku-hartzea ere bai. Programa horretan ez dago itxaron zerrendarik eta lehen elkarrizketarako txanda jasotzeko batez besteko epea egun bat eta hiru egun bitartekoa da.

Nabarmentzekoa da indarkeriazko harremana haustea lortzen duten erabiltzaileek izaten duten bilakaera, laster egiten baitute aurrera gizarte- eta harreman-gaitasunak hobetzeko beren prozesuan, bai eta beren boterea berreskuratu eta seme-alabak zaindu eta hezteko prozesuan ere. Orobat, aurrerapenak egiten dituzte prozedura juridiko eta administratiboei eta eskubidez dagozkien baliabide eta diru-laguntzei buruzko ezagutzei dagokienez ere. Erasotzailearekin bizitzen jarraitzen duten erabiltzaileek ere bilakaera ona agertzen dute beren egoera pertsonalean (auto-estimua eta auto-kontzeptua hobetzen zaizkie), pairatzen duten indarkeria-egoeraz jabetzeko orduan, eta baliabideak zein tresna pertsonal eta sozialak eskuratzekoan.

Etxean Erasotzen duten Nerabedun Familientzako Esku Hartze Programa Espezializatua 2009ko otsailaren 1ean abiarazi zen, horren kudeaketa irabazi-asmorik gabeko enpresa bati esleitzearekin batera. Programa indarkeria filioparentala pairatzen duten familiei laguntzera zuzenduta dago; indarkeria-mota horretakoak dira seme edo alaba batek egin dezakeen edozein ekintza kaltegarri, gurasoarengan edo rol hori duen beste senide edo pertsona batengan boterea eta kontrola ezartzeko asmoz. Egoera horietan esku-hartzea integrala izaten da, familia osoari eragiten diona, harreman-sare osasuntsuago bat ezartze aldera; horretarako, arazoaren azpian dagoen genero-ikuspuntua aintzat hartzen da. Bi psikoterapeutaz eta hezitzaile batez osatutako talde batek egiten du lan familiekin, arazoa bi aldetik jorratzeko: psikoterapeutikoa batetik, eta hezkuntzari eta gizarteari lotutakoa, bestetik.

2010ean programak 49 familia artatu ditu, 156 pertsona, guztira. Genero-indarkeria bizi duten familien ehunekoa esanguratsua da, %33, 2009an baino 3 puntu gutxiago. Datu horiek ikusita esan daiteke familien ehuneko altu batean gertatzen direla aldi berean indarkeria filioparentala eta bikotearen baitako genero-indarkeria; agerikoa da, hortaz, azken faktore horren garrantzia. Hauteman da, orobat, programa honetan parte hartu duten emakumeen %4k bakarrik daukala babes-agindua. Horrez gainera, programan parte hartu duten emakumeen %100ek jaso dute seme edo alabaren erasorik, hau da, 2009ko ehuneko berbera. Agerian gelditu da, horrela, gurasoenganako indarkeriaren azpian genero-arazo bat dagoela, erasoak jaso duten gizonen ehuneko %45ekoa baita.

Gizartekintza Saila *Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiarekin* lankidetzan aritu ohi da. Kide anitzeko aholkularitza-organo horretan hainbat erakunde eta

elkartek hartzen dute parte, Bizkaian genero-indarkerian dihardutenak, beti ere. Behatokiaren helburua informazio-sistema bat eraikitzea da, Bizkaiko Lurralde Historikoan emakumearen aurkako indarkeria-egoerak zaindu eta horien jarraipena egiteko ahalmena izango duena, baita tratu txarren alorrean sortutako erakunde-politiken eraginarena ere, horien garapena, ezarketa eta hartzaileengan duen eragina aztertuz. Finean, dauden baliabideak benetako beharrianetara egokitzea da asmoa. Behatokiaren lanak "Etxeko tratu txarren eta sexu-indarkeriaren biktimak diren emakumeentzako laguntza hobetzeko Erakunde Arteko II. Akordio"tik eratorritako jarduerak koordinatzen etaosatzen ditu.

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiak 2010ean egindako lanak sortu zenetik bere helburuak betetzera bideratuta egon dira. Hona hemen helburu horiek: Bizkaian emakumeak kaltetzen dituzten indarkeria-egoeren errealitateaz jabetzea, batetik, eta alor horretako zerbitzu eta baliabideen eskaintza hobetzeko gomendioak eta proposamenak ematea, bestetik.

Horrela, Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiak informazioa eskatu die erakunde publikoei indarkeria-arazoak dituzten emakumeei buruz: zenbatek erabiltzen dituzten zerbitzu publikoak, emakume horiek nolakoak diren, eta zer laguntza-mota eskaintzen zaizkien, besteak beste. Datu horiek guztiak bildu eta aztertu ondoren, urtero-urtero jendearentzat eskuragarri jartzen diren txostenak osatzen dituzte: "Emakumeen aurkako indarkeria-egoerei emandako arreten kopurua Bizkaiko Lurralde Historikoan: gizartearen, epaitegien eta poliziaren babes-arloa (2009)" eta "Etxean indarkeriaren biktimak diren emakumeei laguntzeko foru-baliabideak eta udalerrietako eta mankomunitateetako baliabideak: harrera, aholkularitza juridikoa, laguntza psikologikoa, familiako esku-hartze espezializatua eta familien elkarguneak Bizkaiko Lurralde Historikoan (2010)". Agiri horiek ontzeaz gainera, beste jarduera garrantzitsu batzuk ere aipa daitezke, hala nola: webgunean informazioa emateko tresnak eguneratzea (Baliabideen Mapa, Baliabideen Atlas, Agiri-kudeatzailea) informazio- eta dokumentazio-eskaeren ebazpenak, eta Behatokiaren hiruhileko aldizkaria egin, argitaratu eta hedatzea. Aldizkari horrek Udalen Harreman Sarea mantentzen eta sendotzen laguntzen du eta azken ekitaldian 16, 17, 19, eta 20. zenbakiak egin dira, baita 21.a prestatu ere, 2011. urtean argitaratzeko.

Azken urtean, orobat, *Genero-indarkeriaren aurkako aurre hartzearen eta arretaren arloko jardunbide egokien, ekimenen eta esperientzien gidaliburua* ontzeko lanean aritu da. Horren bitartez hainbat alderdi jorratu dira: hezkuntza, sentsibilizazioa, hedabideak eta publizitatea, arreta-zerbitzuak, emakumeen aurkako indarkeriaren arloko langileen prestakuntza eta erakundeen arteko koordinazioa, besteak beste.

Esparru judiziala

Oso iritzi ona zor zaio emakumeen aurkako indarkeriaren esparruko epaitegi berezien lanari, baita organo horietako langileen jardunari ere.

Esparru honetan nabarmentzekoa da bere horretan dihardutela dagozkien epaitegietan luzaroegi egon behar duten biktimen kasuek, eta horrek bigarren mailako biktimizazioa larritzen duela. Oro har, biktimak 4 ordu inguruz egon behar izaten du epaitegian.

Zerbitzu honetan hauteman da eraso bat dagoenean gora egin duela emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegietan zereginak bizkor egiteko joerak; horren ondorioz, orde, zigor-neurriak ezartzen dira, ez dira kautelazko neurri zibilak hartzen eta dibortzio-prozedurara igortzen da kasua adingabeen zaintza eta tutoretzari, elikatzeari eta bisitei dagozkien neurri zibiletarako. Horrela, kontuan hartzeko atzerapena dago emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegien eskumeneko prozedura zibilak izapidetzean, familia arloko epaitegi arruntekin izapidetutakoekin alderatuta.

2010ean zenbait jarduera bakan baina gogoangarri egon dira, emakumearen prozesuan eragin ditzaketen zailtasunengatik, batik bat:

- Auzi batean behin-behineko neurrien epaiketa egin ondoren bi hilabete baino gehiago igaro ziren neurrien autoa eman aurretik. Bistan akordioa iritsi zen eta, hortaz, 2 edo 4 eguneko epean gauzatu behar zen. Erabiltzailea bi hilabete baino gehiago egon da bere egoera arautuko duen neurririk gabe.
- Auzi horretan bertan ez ziren neurri zibilak ezarri epaiketa azkarrean eta, azkenean, auto bat eman zen. Auto horretako neurri batek erasotzailea urruntzea agintzen zuen baina, aldi berean, familiaren etxebizitzan bizitzen jarraitzeko baimena ematen zion, hots, emakumearen etxebizitza berritik 200 metrora.
- Beste egoera aipagarri bat: epaile titularrak bi aldeei batera sartzeko eskatzen die akordioa sinatzeko, edo salatzaileari eta salatuari itxarongela berean egoteko dibortzio-epaiketara doazenean, nahiz eta babes-agindu bat egon indarrean.
- Foru Zerbitzu honetan aztertutako kasuren batean jokabide harrigarri bat hauteman da emakumearen aurkako indarkeriaren arloko epaitegietan: tratu txarren biktima diren emakumeei harreraren dauden zentroaren helbidea eskatzea, bestela aginteari men ez egiteaz akusatuko dituztela ohartarazita.
- Administrazio-egoera irregularrean dagoen emakume bati zehapen-espedientea irekitzea, tratu txarrena alorrean bere aldeko sententzia eman ondoren. Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegitik bertatik

bidali zen ofizioa atzeritartasun-bulegora emakume haren administrazio-egoera irregularraren aurrean zegozkion neurriak hartzeko.

- Emakumeek hainbat aldiz adierazi dute ez daudela itzulpenekin ados, beraiek esandakoa fideltasunez adierazi ez dela irizten diotelako, edo itzultzaileek beren iritziak adierazten dituztelako. Azken arazo hori konpontzeko, berriz errepika daiteke genero-indarkeriari buruzko prestakuntza berezia ezartzeko beharra.

Abokatuen Elkargoa

Ofiziozko berariazko txandak jarduera espezifiko bat gauzatzen du biktimentzako abokatuen laguntzan; gainera, lan horren hedapenak emandako arreta hobetzen lagundu du.

Abokatuen sostenguari oso iritzi ona zor diote, bereziki zentroetan bizi diren emakumeen aldetik, beren egoerari aurre egiteko baliabide ekonomikorik, sozialik eta, sarritan, pertsonalik ez dutenez babesgabetasun-egoera berezia bizi baitute. Landu dituzten kasuei buruzko informazioa eman zaie eta Zerbitzu horretan lankidetzaz ezarri da jarduerak koordinatzeko.

Urte honetan nabarmenki egin du behera telefonoz ematen den abokatuen laguntza-zerbitzuak: hiru kasu baino ez dira izan. Nolanahi ere, errepikatu behar da Erakunde Arteko Akordioan ezarritakoaren arabera legeari buruzko aholkularitza buruz buru eman behar dela. Era berean, behera egin du emakumeek salaketa jartzeko polizia-etxeetan itxaron behar duten denborak, atzerapen hori ofiziozko txandan zeuden abokatuak berandutzetik eratortzen baitzen.

Gertakariei dagokionenez, honako hauek aipa daitezke, bakanak badira ere:

- Kasu batean biktimaren berariazko txandako abokatuak emakume hari gomendatu zion bere mugikorrean zituen grabaketak ezabatzeko eta frogagisa ez aurkezteko; gainera, kasu berean, epaitegiko beste atea erabiltzeko gogorarazi behar izan zieten, biktimak erasotzailearekin topo egin ez zezan.

Esparru poliziala

Poliziaren jarduna zuzena izan da: badakite nola egin larrialdiko harrera-zentroetarako lekualdatzea, ongi koordinatuta lan egiten dute biktima babestuta dagoenean, eta harreman ona dago polizia-etxeen eta indarkeria-unitateen artean; horrela, arazoren bat izan denean egoera aztertu eta zegozkion konponbidea eman ahal izan zaio.

Poliziak zentroan bizi diren emakumeei emandako arretari dagokionez, esan behar da Ertzaintzarekin lankidetzaz estua ezarri dela. Besteak beste, telefono

mugikorrak eman dituzte; egoki iritzi diotenean biktimak lagundu dituzte seguruago egon daitezen; elkarrizketak egin dituzte emakumeekin; bana-banako informazioa eman zaie; eta, azkenik, segurtasun-neurriak hartu dituzte emakumeak babes-agindurik ez zeukanean ere.

Gertakari bakanak izan baira ere, aipatzekoak dira:

- Artatutako kasu batean, polizia-etxeok ordu berean eman zieten txanda erasotzaileari eta biktimari emakumearen aurkako indarkeriaren arloko epaitegian.
- Zenbaitetan ez da aintzat hartu langileek bere ondoan egotearekin emakumeari eman diezaioketen sostengua, eta ez diete harekin egoten utzi emakumea polizia-etxera salaketa jartzera joan denean.
- Nabarmendu behar da kasu batean ofiziozko abokatua aurrean egon gabe jaso zela salaketa bat; gainera, emakumea oso luzaroan egon zen polizia-etxean eta erasotzailearekin topo egin zuen hura gertatutakoak egozteko bertaratu zenean.
- Zenbaitetan, polizia-etxean salaketa jartzean ez da epaiketarako garrantzitsua izan daitekeen informazio guztia jasotzen eta horrek eragin kaltegarriak izan ditzake prozedura osoan”.

II.11. EUDEL

“Iritzi ona zor zaio EUDELe 2010 urterako protokoloan jasotako ekintzak gauzatu izanari.

Orobat, ontzat jo da BERDINSAREA egonkortu izana emakumeek jasaten duten indarkeriaren aurkako udal-lanaren eragile garrantzitsu gisa.

Hori guztia euskal udalek arlo horretan egin ditzaketen bestelako jarduera bereziei eragin gabe, beti ere.”

II.12. EUSKAL ABOKATUEN ELKARTEA.

“Uste dugu gauzatutako ekintzak behar bezala egokitu zaizkiola 2010erako hartutako konpromisoari.

Interesgarria litzateke prestakuntza indartzea, ikastaroak genero-indarkeriari eta sexu-erasoei eta, bereziki, azken horri buruzko mintegi edo lantegi gehiagorekin osatuz, besteak beste.

Ontzat jo da prestakuntza emateko beste langile batzuekin koordinatzea, orain arte egin ohi izan den gisara”.